

1.GAIA. Soziologia gizarte bizitzaren azterketarako diziplina zientifiko gisa

1.1.DEFINIZIOA

Gizakien eta animalien jokaerak ez dira berdinak. Gizakien talde bizitza guztiz berezia da; ohitura batzuk jarraitzen dituzte, instituzioak garatzen eta balioak sortzen dituzte. Soziologiak metodo zientifikoak erabiltzen ditu fenomeno hauen azterketan, ezagutza zientifikoak lortzeko helburuarekin. *"Soziologiak gizakien talde bizitzan eta hauen talde bizitzaren emaitzetan oinarritzen du bere ikerketa"*.

Soziologia gizarte zientzien baitan sailkatzen da, ez da zientzia naturala. Bere ikerlan nagusia gizakia eta gizakien arteko harremanak gizartearen baitan aztertzean datza. Gure hezkuntzan, politikan, ekonomian, kulturean... dauden banaketak aztertzen dira, froga logikoetan oinarrituta. Gizakia gizartean dagoen heinean dauka garrantzia.

Beste giza zientziekin konparatuz soziologiak baditu bere berezitasunak:

1. Gizakia abere soziala da, bere ingurune sozialetik isolatu gabe dago. Hau da, itxura izan arren ez bada pertsonekin harremanetan jartzen, ez da bere osotasunean garatuko, azken finean ez baititu bere ahalmenak handituko.

2. Gizakia eta gizartea, bere osotasunean ikertzea hau da, gizartea alde aurretik (gu jaiotze baino lehen) antolatuta dago; gizartea ikertzen da, arauak soziologiak ikertzen ditu, ordena ikertzen du. Eta nola gizarte honen gizakiak eraikitzen dituzte arau berriak ezarrita orden hori aldatzeko; gizakiak daukan aldatzeko gaitasuna hain zuzen.

3. Gizakia eta gizartearen inguruan gertatzen diren elkar ekintza edo infrazio guztiak interesatzen zaizkio, hau da, gizartetik egiten den guztia aztergai da. Gizakien harremana beti ateratzen da produkzioa. Materiala eta ez materiala. Soziologiak gizakiak gizartean egiten duen guztia aztertzen du.

- Metodo zientifikoa erabiltzen ditu.
- Elkarrekintza sozialek sortzen duten ikergaia da:
 - Gizartea: Nola dago antolatuta, nola mantendu gizarte ordena, arauak, ezberdintasun sozialak eta interes ezkutak / erakunde sozialak eta gizarteratze prozesua.
 - Giza taldea: Nola eraldatu ordena soziala eta alternatibak / aldaketa soziala.

Soziologia giza soziabilitatean eta elkartasunaren baldintzak ezagutzeko egiten den ahalegin teoriko eta zientifikoa da. Bere oinarriko aztergaia gizartea da eta zehazkiago, gizakiek eratzen dituzten elkarte, talde edo erakundeak. Soziologiaren berezko aztergaia gizakia da, gizakia abere bezala ulertuta, produktu sozial bezala hartuta.

1.2. KONTZEPTUAK ARGITZEN

Soziologiaren munduan barneratu baino lehen, hainbat hitzen esanahiak ulertu behar ditugu, gizarte ulertzeko beharrezkoak zaizkigunak.

1.2.1. Gizartea; ingurune soziala

Gizartea, gizakien arteko harremanak sortutako ingurunea da.

1. Zibilizazio mota bat izan daiteke soziologiaren aztergai bat. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta bere eragina historian zehar.
2. Herrialde konkretu bakoitza nahiz eta zibilizazio berean egon, bakoitzak berezko ezaugarriak ditu: hizkuntza, ezaugarri fisikoak...
3. Herrialde bakoitzean errealitate txikiagoak daude, errealitate bat erakundeak dira, besteak beste: elizak, familia (monogama, heterosexuala, tradizionala...), talde etnikoak. Azpi herrialde hauek erakundeak dira. Errealitatearen arabera erakunde hauek desberdinak izango dira.
4. Talde sozialak: erakunde batean beste errealitate txikiagoak daude, hots talde sozialak, bakoitza bere ezaugarriekin. Gizarte mota txikiak bezala ulertuak dira. Talde sozial bakoitzak berezko arauak ditu.
5. Bi pertsonen arteko elkar ekintza ingurune sozial bat sor dezake. Bi pertsona elkartzean ingurune sozial bat sortzen dela esan dezakegu. Hirugarren pertsona bat elkarrizketa horretan sartuz gero, ordura arteko keinuak, klima, izateko erak... guztiz alda daitekeelako, baina bi pertsona arteko elkar ekintza guztiak gizartea bezala hartuz. Gizartea dela esan dezakegu, hurrengo baldintza hau betetzen denean: bi pertsonen arteko elkarrekintza aldeztu aurretik finkatutako arau batzuei jarraitzen dienean.

Soziologiaren oinarriak

Lurra planeta ⇔ Gizartea ⇔ Kultura ⇔ Erakunde sozialak ⇔ Talde sozialak ⇔ Hizkuntza eta gizarteratzea

1.2.2. Gizakia; abere soziala

Pertsona bat ez da gizakia izango bere gizartearen barruan dauden arauak

barneratzen ez baditu.

Gizakia GIZARTEAREN baitan:

Gizakiengandik kanpo dauden erregelak existitzen dira, gizakiek zeintzuk diren jakin gabe ere betetzen dituztenak. Gizartearen arauak gu jaio aurretik existitzen dira eta gu hil eta gero arau horiek indarrean dihardute.

Gizartea GIZAKIAREN baitan: (Peter Berger)

Peter Berger dioenez, gizartea 'hor kanpoan' ez ezik hemen barruan ere badago eta zer egiteaz gainera zer izan ere agintzen digu. Horrek esan nahi du, gizartearekiko kokagunea gure portaera eta gure izaera baldintzatzen dutela. Hau da fenomeno hau, rol eta paper sozialen barneratze prozesua dela medio gertatzen da. Txikitatik eta gu konturatu gabe. Gutaz gizarteak espero dena onartzen dugula, egoera hau naturala izango balitz bezala eta beste aukera bat ez balego bezala sentitzen dugu. Gizakien izaera eta portaera desberdinak sartzen dira, parte hartzen duten gizataldeen arabera edo bizi den ingurune sozialaren arabera.

Soziologiarentzat, gizakia gizartearen produktu soziala da eta giza izaera baldintza sozialen menpe dago. Rolek edo paper sozialek (gizarteak gutaz espero duen espektatiba, jarrera, portaerak...) ez dira ekintzen multzoak bakarrik, baizik eta ekintza hauei dagokien sentimendu, jarreraren multzoari. Horrela ulertzea gakoa da; rolen barneraketa ez da kontzienteki egiten, ahaleginez edo pentsatzen den prozesua da. Aldez aurretiko planik gabe eta ia automatikoa.

1.2.3. Gizartea eta gizakien arteko lotura

Non dago askatasun pertsonala?

Elkartu ahal daitezke gizakiaren askatasuna eta gizarte baldintzatzaile bat? Gizarte antolamendurik gabe, pertsonak ezin izango dute bizimodua erosotasunez eraman. Era berean, gizarte bat guztiz ordenatua, hautsi dezake pertsonen askatasuna. Dena den nahiz eta gizarteak gizakiaren portaera baldintzatu, ezin da ukatu gizakiek gizartearen antolamendua alda dezakeenik. Historian zehar nabaria da gizartearen ohiturak, tradizioak, instituzioak, legeak eta balioak gizakien arteko elkar ekintzaren bidez, aldatuz joan direla eta ildo honi jarraituz, gizarte bakoitzaren baldintza ezberdinak dira aurreko gizartearekin konparatuz. Ondorioz, gizarte eta gizakiaren egituratze prozesua dinamikoa eta aldakorra dela esan dezakegu. Askoz gehiago, ingurune sozial batean ezarritako baldintzak aldatzen joaten dira gizarte eta gizakiaren arteko prozesu dialektikoaren bidez.

Honek esan nahi du gizarteak gizakiarekin eratzen direla eta era berean

gizakiek gizartea egin eta konformatu egiten dutela. Bi kontzeptu hauek bata bestearen produktu eta produktuak direla esan dezakegu aldi berean. Dena den, planteamendu hau argitu behar da, bi hauen arteko elkarrekintza harremanez parekoetan sortzen da, baina gizartearen baldintzatzeko gaitasuna gizakiarena baino handiagoa da jaiotze momentuan. Denbora igaro ahala pertsonen haien bizitzan erabakiak hartzeko gaitasuna bereganatzen dute.

1.3. SOZIOLOGIAREN IZAERA ZIENTIFIKOA

Noiz bihurtu da soziologia zientzia? Zer behar izan du hori horrela izateko? Zientzia gutxiak aztertzen dituzte soziologoek baino gauza gehiago. Soziologiak, metodo zientifikoak erabiltzen ditu hainbat fenomenoengandik inguruan ezagutza zientifikoa lortzeko. Soziologiak gizakien talde bizitzan eta hauen talde bizitzaren emaitzetan oinarritzen du bere ikerketa, Aipatu beharrekoa da gizakien talde bizitza guztiz berezia dela, ohitura batzuk jarraitzen dituzte, instituzioak garatu eta balioak sortu. Soziologiak ikuspegi ireki eta orokor bat eskatzen du. Hurrengoetan informazio gehiago lortuko dugu.

1.3.1. Baldintzak

Soziologia zientzia da metodo zientifikoak erabiltzen duelako. Zientzia fisikoak bezala ez izan arren soziologiaren ikertzeko metodo oinarria beste zientzien metodoaren parekoa da; bere ulermen arrazionala eta objektiboa delako eta hurrengo baldintza hauek bete dituelako zientzia gisa hartu izan da:

1.- Enpirismoa: Behaketetan eta datu frogagarrietan oinarrituta soziologia zientzia enpirikoa da, gizarteari buruzko ezagutza guztiak oinarritzeko behaketen bidez erdiesten du. Erabiltzen dituen metodo guztiak bildutako datuak frogatzea dute helburutzat. Horretarako datu horiek azterketa zehatzaren bidez ikertzen ditu soziologiak.

2.- Teoria: Soziologia diziplina teorikoa da te, teoria proposizio edo baieztapen multzoa delako.

Beraz alde zehatzetik helburua finkatuta egongo da eta ikerlana beti datu frogagarrietan oinarrituta egongo da. Baieztapen hauek, bata besteari elkar lotuak eta zentzu logikoaren bidez errealitate edo esparru zehatz bat azaltzeko balio du teoriak. Teoria zientifikoak errealitate honetako lege eta errepikapenak aztertzen ditu eta bi faseetan burutzen da prozesu elkarreragin bati jarraituz. Bi fase hauek elkarri eragiten diote:

1. fasea: Datu enpirikotik --> Proposizio teorikoetara. Ikerlan enpirikoak ateratzen dituen datuak eta haien ondorio partzialak interpretatu ondoren, lege eta errepikapenak ezartzean datza.

2. fasea: Hipotesi teorikoetatik --> Datu enpirikoen ondorioztatzera. Bigarren fase honetan, teoriaren proposizioen bidez lan enpirikoaren datu eta ondorioak interpretatuko dira, aurreko teoria baieztatzeko edo ezeztatzeko. Frogatzeko hasierako teoriak zerikusia daukan guk lortutako datuekin.

Bi fase hauek garatu eta gero, teoriaren helburua azkenik teoria garatzen da.

3.- Irekitasuna: Dogmatismoa (eztabaidatu egin den gauza bat) alde batera uzten du eta aldi berean komunitate zientifikoa aztertzen du. Soziologia ez da dogmatikoa edo ez kritikoa, diziplina irekia da. Soziologiak zientzia gisa ezin du edozein ikerketa baieztapen ontzat eman gai berari buruzko beste ikerketa batekin konparatu gabe, modu enpirikoan edo teorikoan. Beraz alde aurretik baieztatutako ikerlan guztien ekarpenak soziologiaren ezagutza hedatzen dute.

4.- Neutraltasun etikoa: Soziologiaren berezko metodologia moralez neutroa da. Soziologiak ezin du bere ikerketaren baieztapenetan gertaera edo egoera bat gaitzetsi edo onetsi. Ezin du epaitu. Neutraltasun etikoaren lehenetsua objektibotasuna da. Agertzekotan partaideenak izango dira eta beraienak direla agerian jarriko ditugu.

5.- Kritika: Soziologiaren helburua gizakiaren/gizartearen kritika da. Kritika horrek zentzu subjektiboa dakar eta neutraltasun etikoa bermatzeko soziologiak autokritikari ekin behar dio. Hau lortzeko, ezartzen diren abiapuntu, metodologia eta baieztapenak etengabeko bere aztertze eta eguneratze prozesu batean eztabaidatzen dira. Autokritikaren aldetik, kontuan hartu behar da, soziologoa bere gizartearen partaide bat izanik, gizartea baldintzatua izan daitekeela. Egoera hau gainditu behar dira soziologiaren ikerlanak gizarteak espero duen erantzun egokiak eta bere antolamenduaren legitimatzeko baliabideak zalantzan jarri beharko ditu. Esaterako, etnozentrismoa.

1.3.2. Soziologiaren alorrak

- Lanaren soziologia
- Hezkuntzaren soziologia
- Soziologia politikoa
- Soziologia hiritarra
- Erlijioen soziologia
- ...

Gai hauek ez dira soziologiari eksklusiboak, beste diziplina zientifiko batzuetan ere aztertzen dira eta alor desberdinetan ikas daitezke. Bakoitzak haien ikuspuntutik aztertzen dituen garrantzia maila desberdinak daude.

1.3.3. Soziologia eta gizarte langintzaren arteko harremana

- **Soziologia:** Gizarte bizitzaren azterketa.

- **Gizarte langintza:** Ekintzari zuzendua, esku hartzean oinarrituta baitago, errealitatean eragiteko asmoz. Beharrian psiko- bio- sozialaren aurrean eskaintzak egiten ditu.

IKUSPEGI SOZIOLOGIKOA GARATUZ

Mundua gure parametroen arabera ikusten dugu (bakoitzak betaurreko desberdinekin). Soziologiak ikuspegi ireki eta orokor bat hartzea eskatzen du, honela aztertu ahal dugu zergatik garen, garen modukoak bezala eta zergatik jokaten dugu jokaten dugun bezala.

Gizarte zientzialari batek bere egoera edo inguru-miratik distantzia hartu behar du eta gauzak edo ekintzak testuinguru orokor batean kokatu behar ditu. Objektibotasuna zailagoa da soziologian beste zientzia batzuekin alderatuz.

1.4. IKERKETA PROZESUA

Soziologia zentzu komunaren zientzia da? Edozeinek jakin dezake soziologiak aztertzen dituen erantzunak? Askotan gure zentzu komuna ez dator bat soziologiak ematen dizkigun erantzunekin, giza errealitatea adierazten baitu, eta gu ezin gara errealitate guzti horren erantzunak jakin.

Galdera soziologikoak

Soziologoek gizarte bizitza aztertzen dute galdera ezberdinak eginez eta ikerketa sistematikoaren bidez erantzunak aurkitzeko asmoz. Galdera mota desberdinak izan daitezke:

- **Galdera faktualak:** gertaeretan oinarrituta, deskriptiboak. Nolakoa da egoera bat, ze gertatzen da... ?
- **Galdera konparatiboak:** faktore bat eta besteen arteko konparazioa, irizpide batzuk jarraituz. Toki edo garai guztietan gertatzen da... ?
- **Galdera progresiboak:** denboran zehar, bai lehen, bai etorkizunari begira. Noiztik ematen da gertaera hori... ?
- **Galdera teorikoak:** erantzun arrazoituak, zerbaiten atzetik dagoena. Zergatik gertatzen da... ?

Ikerketa zientifikoa prozesu bat da, dinamikoa eta aldakorra. Prozesu honetako pausuak elkarrekin lotura dute, beraz erabaki bat hurrengoan eragina izango du. Hau da, ikerketa prozesuarekin batera, ezagutza berriak sortzen dira, galdera gehiago egiteko.

Ikerketa prozesua

1) IKERGAIAREN DEFINIZIOA

Gizarte Zientzietan egiten diren ikerketetan bi arrazoi nagusi daude:

- Gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitzea. Arazo zehatz bat konpontzea baino (oinarrizko ikerketa).
- Beharrizan sozial bati erantzutea (ikerketa aplikatua). Ikerketen ondorioak arazo zehatzei irtenbideak bilatzeko edo gizarte batean dauen disfuntzioak konpontzeko balio dezakete.

2) IKERGAIARI BURUZKO LITERATURA AZTERKETA

Behin ikergaia zehaztu dugunean, ikertu nahi dugun gaiari buruz idatzitako ezagutu eta aztertu. Ikerketaren marko teorikoa.

3) HIPOTESIEN FORMULAZIOA

Hipotesiak ikergai den fenomenoari buruz ikerlariaren ikuspuntua (usteak...) erakusten duten baieztapenak dira. Marko teorikoa izanda, marko enpirikoa bilatuko dugu. Garrantzitsua da aurreiritziak edo uste probisionalak ondo formulatzea \Rightarrow Horren arabera erabiliko ditugun teknikak desberdinak izango dira \Rightarrow Kontuan hartu behar dugu egiten ditugun hipotesiak zuzenak edo okerrak izan daitezkeela. Ikerketa amaitu ondoren emaitzen arabera onartu edo baztertu egingo ditugu.

Hipotesi motak

- **Hutsak edo deskriptiboak:** Ez dira aldagai desberdinak harremantzen. Deskripzio hutsa dira eta zerbaiten nolakoa adierazten digu.
- **Koerlatiboak:** Bi edo aldagai gehiago harremantzen dira. Lotura dago haien artean eta konparazioak egiten dira askotan.
- **Norabidea erakusten dutenak:** Progresiboak. Egoera baten bilakaera egiten duen bidea. Zer gertatzen den.
- **Kausalak:** Konplexuagoak dira. Askotan zergatiak aurkitzea oso zailak dira. Ikerketa batean dagoen informazioa bilatzea dute helburu.

Kontzeptuen edo aldagaien operazionalizazioa

Kontzeptuak: Hipotesietako aldagaiak argiak eta zehatzak izan behar dute.

1) Definizioa zehaztu. Aldagaiak zehaztu eta definitu.

2) Nola neurtu? Aldagaien adierazleak adierazi eta zehaztu. (Egoera neurtzeko irizpideak: galdera zehatzak, portaera zehatzen bidez, gertaeren errepikapenaren bidez)

3) Ezaugarri erantzunak. Adierazleen kategoriak adierazi. (Baliozko erantzunak adierazi)

4) IKERKETARAKO DISEINUEN PLANGINTZA

Diseinuak, ikerketaren hipotesiak onartzeko edo ezeztatzeko egin behar diren azterketak, azterketa horiek egiteko emango diren pausoak, eta behin informazioa lortu ondoren erabiliko den prozesu analitiko edo estatistikoak zehazten ditu. Ikerketa metodoaren aukeraketa, gaia eta ikerketaren helburuen arabera izango dira, bi metodo nagusi azpimarratuz:

- **Kuantitatiboa:** estatistika edo datuetan oinarrituta, gizartea eta deskriptiboa azaldu. Teknika: inkesta baten bidez.
- **Kualitatiboa:** gizartea era sakonean aztertzeko erabiltzen dute soziologoek. Teknika: elkarrizketa sakona, talde elkarrizketa, eztabaida taldeak...

Ikerketari ekin baino lehen gaiak zein galderen metodologia ezarri behar dira metodo bakoitzarentzat.

5) DATUEN BILKETA

Ikerketako eskemaren arabera da datu bilketa hori eta sarritan eskema aldatu beharra egongo da ustekabeko zailtasunei aurre egiteko. Datuak eta informazioa jaso behar dugu gure ikerketarekin bat datozenak. Honi landa lana deitzen zaio.

6) DATUEN ANALISIA

Pauso honetan bildutako datu guztiak taula baten edo beste tresna baten bidez sailkatzen dira. Hauek behin behatuta bere errepikapenak, bere desberdintasunak, bere analogiak... aterako ditugu, behin behineko emaitza lortuz. Hiru konklusio aterako ditugu:

- Hasierako hipotesiak egiaztatu edo baztertuko ditugu.
- Zer jakintza gehitu digu ikerketa honek?
- Zein galdera edo iradokizun sortu dizkigu ikerketak.

7) TXOSTENAREN IDAZKETA ETA KONKLUSIO LORPENA

Amaitzeko, ikerketa soziologikoa ikerketa zientifikoa dela esan behar dugu. Behaketa zientifikoa zer den jakiteko hurrengo sei ezaugarri aipatuko ditugu. Horien bitartez behaketa zientifiko eta gauzei begiratze hutsa egitearen dauden aldeak ikusiko ditugu:

1.- Behaketa zientifikoa zehatza da, gauzak deskribatu diren bezala direla

ziurtatuko du.

2.- Behaketa zientifikoa zuzena da. Baieztapen zuzentasunari edo neurriari dagokio hori.

3.- Behaketa zientifikoa sistematikoa da. Ezaugarri hau fidagarritasunarekin lotuta dago. Oroitzapen kasualetan oinarritutako konklusioak ez dira fidagarriak. Iritziak elkarrizketaren parte bezala ikusi behar ditugu. Behaketak programa sistematiko eta antolatu baten barruan bilduak izan ez badira, ziurrena da irregularrak eta erdizkakoak izatea.

4.- Behaketa zientifikoa erregistratu egiten da. Bildutako datu guztiak beti taula batean erregistratu behar dira, edonork ikusteko.

5.- Behaketa zientifikoa objektiboa da. Giza legez litekeena den neurrian behaketan behatzailearen balio, gogo, uste eta lehentasunek ez dute eragina izango. Gauzak diren bezala ikustea eta aurreiritziak alde batera ustea.

6.- Behaketa zientifikoa baldintza kontrolatuetan burutzen da, errealitatearen interpretazio okerrak saihesteko.

Beraz aurreko atal guztiak modu argi batean bildu behar ditugu, informazio iturriak eta landa lanaren nondik norakoa azalduz. Azkenik txostena norentzako den kontuan hartuko dugu. Esparru bakoitzak hizkuntza erabiltzeko modu egoki eta desegokiak finkatzen baititu.

1.5. SOZIOLOGIAREN AZTERGAIA

Zein da soziologiaren aztergaia? Hemen soziologiak ikasten dituen gaiak eta haren testuinguruak ezagutuko ditugu.

1.5.1. Zer da gizartea, zer da ingurune soziala

Gizartea gizakien arteko harremanak sortutako ingurua da. Bost ingurune sozial nagusi bereizten ditugu:

- **Zibilizazio bat:** Gizarte mota bat da eta maila abstraktuen aldetik soziologiak hura azter dezake. Gizartean hainbat zibilizazio mota daude eta hauen artean desberdintasunak handiak dira.
- **Herrialde bat:** Herrialde bakoitzak badauzka berezitasun batzuk singularrak edo berezkoak direnak. Hala ere, badaude komunean dituzten berezitasunak herrialde desberdinen artean.
- **Erakunde bat:** Herrialde baten barruan badaude hainbat klase sozial eta

klase sozial hauek arazoak dituzte.

- **Talde sozial bat:** Herrialde batean lau esparru nagusiak daude; kulturala, ekonomikoa, soziala eta politikoa, eta esparru honen barruan beste errealtate txiki batzuk daude, talde sozialak izango direnak.
- **Bi pertsonen arteko harremanak:** Gizartean talderik txikiena da. Bi pertsona elkartzean ingurune sozial bat eratzen dela esan dezakegu. *Zergatik? Hirugarren pertsona bat beraien elkarriketan sartuz gero, ordura arteko tonua, keinuak, klima... guztiz alda daitekeelako.* Baina bi pertsonen arteko harreman guztiak ez dira gizarte bezala hartzen. Elkarrekintza mota hau gizartea dela kontsideratzen dugu, baldintza hau lortzen bada: aurrez aurretik geraldia egon behar da finkatuta eta arau zehatz batzuk jarraituko dira.

Elkarrekintza hori leku publiko zein pribatuan eman daiteke, eta arauak beharrezkoak dira. Hau da rola edo botere harremanak gertatzen direnean, Aurreiritzi edo arau horiek ematen ez badira ez da elkarrekintza gertatzen.

1.5.2. Arazo soziala eta arazo soziologikoa

Ikusmolde humanistaren barruan aztertzen dugu:

- **Arazo soziala:** Orokorrean, agintari-administrazio ikuspegitik gauzak 'gaizki' doazen momentua. Normalean gizarte ordenuaren edo ezarritakoaren kontra doana. Berdin dio arau horiek bidezkoak edo ez bidezkoak diren.
- **Arazo soziologikoa:** Gizartea nola funtzionatzen duen jakitea, (Nola dabil ingurune sozial bat, zeintzuk diren bere arauak, zein baliabide behar dituen harreman sozialen sistema hautsi gabe, gizarte ordenua mantendu eta kideen loturak kontserbatu.) Beraz soziologiari interesatzen zaiona da, positiboa, orokorragoa dena da. Gobernua bai, horren barruan eman daitekeen iraultza ez. Gizarte batean arau-sistema bere osotasunean ikertzen da, ikuspegi soziologikoa, eta ez hori bakarrik, egoera zehatz batean parte hartzen duten talde sozial guztien ikuspegi guztietatik ere. Soziologia modu orokor eta objektiboan ikertzen saiatu behar da.

ARAZO SOZIALA	ARAZO SOZIOLOGIKOA
Homosexualitatea	Harreman sexualak antolatzeko arau sistema.
Herrien autodeterminazioa	Identitate kolektiboen sistema/ Politika zentralista, ez demokratiko eta inposatzaileak.
Etxegabetzea	Etxebizitzaren antolamendu pribatua.
Bortxaketa	Genero arau sistema.
Eskola porrota	Hezkuntza sistema.
Arrazakeria	Etnozentrismoa.
Pobrezia	Dirua eta baliabideak banatzeko modua.
Langileen greba	Lan sistema eta baldintza txarrak.
Terrorismo islamikoa	Erljioa.
Klase sozialak	Gizarte banaketa.
Delinkuentzia	Legea. Arau mota bat, inposatua, kontserbatua.
Iraultza	Gobernua. Botere eta agintearen banaketaren arauak.
Dibortzioa	Ezkontza. Harreman sexualak antolatzeko sistema.
Tratu txarrak	Genero, adin... desberdintasunak.
Frantziar iraultza	Erdi aroko gizartea.

2. GAIA. Soziologiaren sortzaileak eta ikuspegi soziologiko nagusiak

2.1. SOZIOLOGIAREN HASIERAK

Soziologiaren jaiotza ulertzeko, ezinbestekoa da testuinguru historikoa deskribatzea eta bertan zein aldaketa sozialak ematen diren, hauek soziologia eta bere mundua interpretatzeko ikuskera berria eragiten baitute. Bi gertaera nagusi azpimarra daitezke. Gizarte tradizionalaren krisien ondorioz, horren eraginez gehienek onetsita zeukaten kultura, ez da baliogarria:

a) Industria iraultza (XVII - XVIII). Erresuma Batuan. Langileak lantegietan zeuden oso baldintza txarretan, eta horren ondorioz iraultza eman zen. Horretaz gain kontuan hartu behar da, langileek makinariaren bitartez produkzio prozesu osoko atal bat baino ez zutela betetzen.

b) Frantziar iraultza (1789). Monarkia boteretik kentzeko eman zena.

2.1.1. Industria iraultza eta Frantzia Iraultzaren aldaketak

Soziologiaren jaiotza, mendebaldeko gizarte tradizionalaren krisiarekin eman zen. Industria iraultza eta Frantziako iraultza aldaketa sozial sakonak ekarriko dituzte, zeinek aurreko mendeetan zehar ezarritako antolaketa soziala desagertzen den. Mundu berri horretara moldatzeko eta ulertzeko, ofizialki eta gizaki gehienek onetsita zegoen kultura jadanik ez da baliogarria eta eztabaidan jartzen da.

Illoan jarraitzeko, baldintza historiko berri bat munduarekiko hausnarketa pizten dute gizaki batzuen artean. Ordura arteko kultura tradizionalak eta aurre industrialak ezin ditu azaldu antzinako orden soziala. Beraz bi iraultza hauek agerian jartzen dute gizarte tradizionalak ezin dituela asetu biztanleriaren behar sozial berriak. Mundu moderno eta industrial berri hau hobeto antolatzeko, sortzen dira mota ezberdinetako ideien eztabaidak esparru zientifikoan politikoak eta sozialean.

Ondorioz, ideien alternatiboen bilaketak ordezkatzeko du kultura tradizional horrek zeukan mundua interpretatzeko eta antolatzeko ikuskera bakarra. Hori dela eta, diktadura ezkertiar zein eskuindar batean edo kultur aniztasuna onartzen ez den gizartean soziologia ez du garatzeko inolako aukerarik. Egoera horretan kultura ofizialari buruzko hausnarketan gizarte ordenua alda daitekeelako. Ezarritako ideologia edo kultur honen sustatzaileen interesak arriskuan jarri dezakete. **Aldaketa sozial batzuk industria iraultzaren ondorioz.**

TRADIZIONALA	INDUSTRALIZAZIOA
<u>Giza harreman baldintzak</u> - Komunitate txikietan. - Biztanleen elkar ezagutzea laguntza. - Gizarte kontrol estuagoa.	- Hiri handietan (miliaka milioi) - Anonimotasuna - Askatasun indibidual handiagoa.
<u>Manufaktura ekoizpena</u> - Etxeko inguruan lan egitea. - Nekazaritza, artisautza.	<u>Ekoizpen industrialia</u> - Etxetik kanpo lan egitea. - Hiri handietako lantegiak.
<u>Lanaren prozesu osoaren jabea</u> - Jatorrizko lehengaitik produktuak amaitu arte lan egiten zuten.	<u>Lanaren espezializazioa</u> - Lanaren deshumanizazioa. - Errepikapen mekanikoa. -Kreatibitate gabekoa.
<u>Lan baldintzak</u> - Harreman pertsonaletan oinarrituta.	- Langileak ez dute elkar ezagutzen. - Lankide/ugazabarekin harreman ez pertsonalak.
<u>Aberastasun iturri nagusia</u> - Lurra.	- Diru pilaketa, kapitala.
<u>Estatus atxikia</u> - Kokapen soziala/ Bizi aukerak jaiotza ezaugarrien menpe. - Adina, sexua, etniaren arabera. - Jaiotze baldintzengatik alde zuzenetik aurretik pribilegio asko edo gutxi atxikitzen zaizkio pertsonari; berdin dio mereziak diren ala ez edo bere jarduerak ongi betetzeko gai den ala ez. - Ia ezinezkoa maila soziala aldatzea. - Gizarte mota: estamentuak/ feudalis.	- Gizabanakoaren hautaketaren, ahaleginen edo ekintzen bidez. - Meritu pertsonalaren arabera. - Lortutako statusa. Gizabanakoak bere ahaleginen edo merituei esker eskuratzen dituen kokapen eta balorazio soziala jasotzea. - Mugikortasun sozialen erraztasuna. - Gizarte mota: klase soziala.

Ondorioz, gizarte industrialak, nekazaritza munduko senideen arteko loturen, balore tradizionalen eta sinesmenen garrantzia ahultzen eta desagertzen du giza harremanak baldintzatzen dituen bizimodu berri bat zabalduz.

Frantziar iraultzaren aldaketak

Aurkikuntza zientifiko, teknologiko eta iraultza ematen dira.

Talde berri bat, burgesia: Hirien 'burgoren' hazkuntzarekin batera sortzen da. Merkatariak eta artisauak, lurra lantzen ez duten langileak, nobleziarekin lehian jartzen dira boterea lortzeko.

Komunikazioen indartzea: Aurkikuntza teknologiko eta zientifikoak direla medio, garraibideen hobekuntza, distantziak txikitu, bestelako kulturak ezagutu eta merkataritza errazten zuten. Honek burgesiaren aberastasuna gehitzen du.

Inprenta asmakizuna: Nobleziak eta elizak daukaten informazioa eta kulturaren monopolioa desagertzen da. Inprimakiak eta lehenengo egunkariak zientzia eta erlijioaren kontuen zein gertakizun politikoren interpretazio askeago eta ugariagoa zabalduz.

Ondorioz...

- Botere kontzeptua aldatu egiten da.
- Erregearen botere absolutua, botere banaketara igaroz, hori eskatzen da.
- Giza eskubideen adierazpenak, demokraziaren oinarria suposatzen du.
- Gutxieneko pribilegioak alde batera utzi eta gizaki guztiak berdinak izan behar dute lege eta justiziaren aurrean.
- Gizakia bere etorkizuna eta bizitzaren jabe bakarra dela eta gizartearen antolakuntza gizaki guztien esku egon behar dela pentsatzen hasten da.

Eratzen dagoen mundua ulertzeko, kaos sozialari aurre egiteko, ofizialki eta gizaki gehienak onetsi zuten kultura (teozentrismoa, tradizioa, botere absolutuak) jadanik ez dira baliagarriak, eztabaidan jartzen dira. Premiazkoa da tradizionalak ez diren ideia alternatiboak bilatzea mundu kaotiko eta gatazkatsu horri erantzuteko eta gizarte berreraikitzeke. Ordutik aurrera ideia aniztasuna nagusitzen da eta pentsamendu zientifikoa gizakia protagonista bezala ulertzeko era, eta demokrazia vs. absolutismoa bihurtzen dira lehia bezala, eta bi aukera bezala.

2.1.2. Auguste Comte (1798 - 1857)

Soziologia agertu baino lehen filosofo eta teologoek haien hausnarketak

'gizarteak nola izan behar zuten' imajinatzeraz edo deskribatzeraz zuzentzen zituzten, hau da mundu ideal batera. Comptek hausnartzeko modu berri bat definitu zuen. Aitzindari honek gizartea eta mundua nolakoa den, nola funtzionatzen duen azaldu eta ulertzea du helburu. Errealitate bai, idealismorik gabe. Bera asmatu zuen soziologiaren kontzeptua, eta gizartea ikuspegi positibista eta zientifiko batetik aztertzea bilatzen zuen, datu objektiboetan oinarrituko gara eta komunitate zientifikoak onetsi behar du. Ikuskera positibista honen barruan hainbat izen azpimarratuko ditugu:

- Maquiavelo: 'El fin justifica los medios'.
- Hobbes: 'El hombre es un lobo para el hombre'.
- Rousseau: 'El hombre es bueno por naturaleza'.

Gizartea eta giza gertaerak gauzak balira bezala ikertzea proposatzen Comptek. Fisikak eta matematikak egiten duten bezala, eta diziplina hauetako metodo zientifikoa soziologiari aplikatu behar zaio. Ikuspegi eboluzionistak azaltzen du gizartearen pentsamenduaren garapena, gizartearen bilakaera modu lineal batean egiten da, ez modu zirkular batean; mundua interpretatzeko era simple batetik, beste konplexuago batzuetara garatzen da eta ez dago atzera bueltatzerik. Mendebaldeko zibilizazioaren ikuskera eta gizarte antolamendu mota, hiru etapan banatuta:

1. Etapa: Teologikoa. (Europako Erdi Arora arte). Gizakiaren haurtzaroarekin konpara daiteke: mundua eta gizartea Jainkoaren produktu dela ulertzen da. Gizakiak ez du ezer eginik ezta aldatzerik dena Jainkoaren borondateak antolatuta eta erabakia dagoelako. Horrela da eta ezin da aldatu, iraultzarik ez da ematen.

2. Etapa: Metafisikoa. (Errenazimendua). Gazteriarekin konparatu dezakegu: mundua eta gizartea ez da naturaz gaindiko edo jainkozko kontu bat bezala ulertzen, ideia abstraktuen arabera baizik. Ideiak daude baina oraindik ez dira akziora eramaten.

3. Etapa: Zientifikoa. (XIX. mendetik aurrera). Heldutasunarekin konpara daiteke: Cópernico XVI, Galileo XVII, Newton XVII - XVIII. Aurreko etapetan ematen diren ideiak abstraktuen zinezkotasuna ezin da frogatu edo egiaztatatu. Mundu zientifikoari esker mundu natural eta sozialari buruzko azalpenak errealitatearekiko harreman zuzenagoa daukatela edo ez berauek asmakeriak baino ez diren ziurta daiteke.

Laburpena

1. Ekarpena. Soziologiari izaera zientifikoa atxikitzea eta bestelako diziplina zientifikoak bezala errekonozitu.

2. Ekarpena. Etapetan aztertzeari esker identifikatu eta agerian jarri zuen zeintzuk izan diren mundua interpretatzeko ikuskera nagusia eta bakoitzak bere bizitzan duen eragina.

Hutsunea. Dena ez da lineala eta ez doa hobera, historiak frogatu izan digu.

2.2. AITZINDARIAK ETA LEHENENGO TEORIKOAK

2.2.1. Karl MARX (1818 - 1883)

Marx da aldakuntzaren soziologiaren eta gatazkaren ikuspegiaren ordezkaria. Bere testuinguru historikoak azaltzen digu, zergatik egile horri interesatzen zaion kapitalismo gizartea azaltzea eta kapitalismo horri alternatiba bat eskaintzea. Horrek eragin handia izan zuen bere pentsamendu eta bizimoduan. Hainbat gertaera historiko bizi izan zituen:

1) Kapitalismoaren krisi handiaren lekuko da (1830. hamarkadan). Ondorioz desegonkortasun sozial orokor bat eta etengabeko gatazka sozialak bizitzen ditu.

2) 1848ko iraultza. Europan zehar, monarkia absolutistaren kontrako iraultza da, mugimendu nazionalistek bultzatuta, lehenengo langile mugimendu eta liberalek bultzatua. Ondorioz, desoreka testuinguru honetan agertzen da 'Manifestu komunista' izeneko Engelsekin batera idatzia.

Testuinguru horretan hurrengo ekarpenak egingo ditu:

1. Ekarpena. Materialismo historikoa proposatzen du, bere garaiko krisiari azalpen bat emateko. Gizartea sortzen da edo gizakia elkartzen da, ez ideologia mota bategatik, baizik eta denon indarren metaketarekin gehiago lor dezakegulako. Dena gure behar izan materialak betetzeko asmoz.

2. Ekarpena. Ekoizpen bideak. Historian zehar baliabideak lortzeko ekoizteko era desberdinak asmatu dira; ehiztari ekonomia, nekazal ekonomia eta ekonomia kapitalista. Horren arabera, gizakiaren kontzientzia edo mentalitatea desberdina izango da. Dena ekoizpen sistemaren arabera dago. Ekonomia motak baldintzatzen du.

3. Ekarpena. Klase borrokaren teoria proposatzen du. Krisiaren irtenbidea bilatzean datza, eta horretan langileriari aldaketa iraultzaile bat egiteko paper nagusia ematen zaio. Bi talde bereiziko ditugu: jabetza daukatenak eta ez daukatenak. Kapitalismoan, burgesia eta langileria izendatutakoak.

Materialismo historikoa azaltzeko zera esaten du Marxek: Teoria ekonomiko bat garatzea planteatu zuen krisiari azalpen bat emateko gai zena. Horrekin batera

langileria bultzatzea bilatzen zuen, bertan parte hartzera aldaketa iraultzaile bat emateko. Alde batetik, materialismoaren bidez gizartearen jatorria edo sortzeko zergatia azaltzen du. Gizakiok bizirauteko behar izanei aurre egiteko eta baliabide materialez hornitzeko, beste gizakiekin harreman sozial egonkorrak eraikitzen ditugu, baliabideen ekoizpen prozesua ahalbideratzeko. Beraz harreman sozialen zentroa eta motibazioa ekoizpen eta bizitza materiala bermatzea dira. Ondorioz, modu materialak baldintzatzen du bizitza soziala, politikoa eta espirituala. Bizitza materialaren arabera, bizitza espiritual bat izango dugu.

Aurreko teoriarekin batera beste teoria bat proposatzen du. Klase borrokaren teoriaren arabera, zera; 'Betidanik gizakiaren historia, klase borrokaren historia da, jabeen eta jabetza ez dutenen artean ematen da' Manifestu komunista.

- Zer da klase borroka?

Marxen arabera klase borroka gatazka mota bat da eta horretan sortzen den ekoizpen modu baten etekinak eta soberakinak, gizarte klase batek bereganatu nahi ditu. Hau kapitalismoan ematen da, burgesia eta proletargoaren artean. Horren arabera bi klaseak bereiziko dira, jabetza dutenen eta ez dutenek. Aurrekoaren ondorioz, borroka sortuko da.

- Nola ematen da klase gizartea?

Marxek argudiatzen duen bezala, ekoizpen bideak dituen horrek, makinak, lurrak, lantegiak... zein jabetzak dituen klase sozialek botere banaketarekiko posizio menderatzailea dutela. Historian zehar, kapitalismoan barne, klase honek gain-egitura eraikitzen dute, hau da Marxek asmatutako marko juridiko eta erregimen politiko zehatz bat eta horretan jabeen interesak babesten dira. Horrela haien aginte eta botere osoa beste gizarte kideen gainetik baieztatzen dute. Era berean, belaunaldi belaunaldi, bere boterea mantentzeko justifikazio ideologiko bat zabaltzen dute, bere boterea sozialki ontzat hartzea edo legitimatzea lortzeko.

- Erdi Aroan --> Teozentrismoa -> Elizaren boterearen defentsa.

- Gaur egun --> Teknokraten botera --> Boterean teknikariak bakarrik egotea, gu baino kualifikatuak, ekonomiaren interesak pertsonen gainetik.

ALIENAZIOA

Gizarte kapitalistaren ondorioa. Gizakiak bere baitako zerbait galtzea da, ondorioz bere buruarekiko ezezagun bihurtuz. Marxen ustez, alienazio nagusia lanarena da eta hortik besteak sortzen dira, denak oinarri ekonomikoa dutelarik. Gizakiak bere lanean, naturarekin harremanean, lortutako

produktua bere lana bezala ikuste du baina lanaren onurak beste batentzat izango dira, horrez gain, langilea produktuaren zati bakarra egiten du, produkzio katearen barruan, independentzia kenduz. Langileak egiten duen ekintza horretan isolatuta ikusten da.

Gizarte kapitalistan, alienazioaren ondorioz, gizakia gauza bat da, bere alderdi gizatiarrak (irudimena, ekimena, lanaren zentzua...) galduz eta lanerako indar hutsa bihurtuz. Proletarioa 'objektu' bihurtu eta askatasuna galduko du. Beraz lana bukatzen denean, gizakiak bere instintuak betetzera behartuta ikusiko da, bere jakin-mina ez landuz. Marxek jabetza pribatua ezabatzea proposatzen du.

2.2.2. Emile Durkheim (1858 - 1917)

Durkheimen ustez ordea, gizartea ez da ekonomiagatik eta beharrian materialengatik batzen, baizik eta haien pentsaera ideologikoagatik batzen dira, balore komunak arabera, ordena mantenduz. Hainbat ezaugarri ditu:

1.- Egite soziala: Soziologiaren instituzionalizazio gisa, Emile Durkheimen eskutik eman zen eta Marx eta Weberrekin batera soziologiaren oinarriak finkatu zituzten. Kontzeptu berri honekin azpimarratu nahi du, gizarte gertaeren objektibotasuna. Gizabanakoaren kanpo dagoen errealitate sozial bat existitzen da, giza banakoa kanpo presioa eragiten dion edozein gertaera. Berak soziala dena ikertzen du gauza balitz bezala.

Giza borondatek kanpo dago bizitza propioa duelako, hau da bera existitzen da gu jaio baino lehen eta hil ondoren, antolamendu sistemak baititugu. Gizakiaren bizitza, zein desio eta erabaki pertsonalak eragiten edo baldintzatzen ditu (instituzioak, arauak). Beraz egite soziala gure kanpo existitzen da, ezin dugu kontrolatu eta badaude (erakundeak, balioak, bizimoduak eta ohiturak).

2.- Ikuspegi positiboa: Zientzia positiboak bezala, errekonozimendua lortzen du soziologia. Datu frogagarrietan oinarritu behar gara. Gizarte fenomenoak azterketak kasualitatea printzipioaren aplikazioan oinarritu behar dugu eta ez aurretik ezarritako edo frogatu gabeko ideietan, metafisikak egiten duena. Ikerketa bat hasten da, galdera batekin, gero datuetara jo eta bildu eta amaieran datu frogagarriekin hausnarketa egin.

3.- Gizarteko lan-banaketa:

1.- Gizartea nola eratzen da? Nola lortzen du gizarteak bere orden, antolamendua modu egonkor batean mantentzeko? Gizarte morala balore kolektiboek esker kohesio soziala lortzen eta gizartea eratuz aldaketa egonkor sozial bezala. Lan sozialaren banaketa sinplean oinarritutako gizarte tradizionala edo kohesio elkartasun mekanikoaren bidez.

2.- Nola ematen/eraikitzen da kohesio mota hori? Lanaren banaketa sozial mota bakoitzak sortzen du, elkartasun soziala. Lan sozialaren banaketa espezializatuan oinarritutako gizarte modernoa industriagintzatik aurrera, kohesio hori elkartasun organikoa.

3.- Balore kolektiborik gabeko gizarteak zer espero dezake? Esan beharra dago, gizabanakoa ez dela isolatuta aztertzen, gizartearen kide bezala baizik. Horregatik kanpoan dagoena basatia da. Beraz garrantzia balore eta arau kolektiboek ematen dio, anomia.

ELKARTASUN MEKANIKOA	ELKARTASUN ORGANIKOA
<p><u>1. Elkartasun soziala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte tradizional aurre industrialak. - Lan banaketa, lanbideak ez ziren hain espezializatuak eta gizartekideek denetarik egiten zuten. 	<ul style="list-style-type: none"> - Modernoetan, industrializazio gerora. - Harreman sozialak gizarte jarduera espezializatuagotan oinarrituta; bere espezializazioa, batak bestearen laguntza, kooperazio beharrezko bizimodu egonkor aurrera eramateko.
<p><u>2. Elkartasun soziala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Harreman sozialak kontu afektibotan komuneko sentimenduetan oinarrituak komunitate tradizioa, elkar ezagutzea. Aurpegiz aurpegiko harremana. (Familian, erlijioan edo ohore kontuak Erdi Aroan). 	<ul style="list-style-type: none"> - Harreman inpersonalagoak dio. Batak bestearen trebetasun ezagutza edo baliabide materiala behar duelako helburu bat lortzeko eta ez leialtasun edo afektibitateagatik.
<p><u>3. Elkartasun soziala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte batean ia kide guztiak kontzientzi kolektibo bera partekatzen dute. Hori sakontasun handiz antzematen da, erabat zurruna. ALDAEZINA da eta horren edukia erlijiosoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontzientzia kolektibo bera partekatu egiten duten gizakien kopurua txikia da. Esparru espezializatu bakoitza, sinesmen sistema propioa. (Artistak, enpresarioak, gizarte langileak...)
<p><u>4. Elkartasun soziala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Moral sozial bakar honetatik desberdintzeak, heriotza edo baztertu egotea zekarren. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontzientzia kolektibotik kanpo ez dago ez heriotzarik ez muturreko zigorrik. Bazterketa sozial partziala.

Gizartearen lan banaketaren teoriaren laburpena

Lan sozialaren banaketaren arabera da, ez dira baliabide ekonomikoak lortzeagatik batzen. Industrializazioa baino lehen gizartea lan banaketa sinpleetan banatzen zen, familia eta erlijioa da mentalitate bakarra. Elkartasun horregatik mekanikoa ematen da, gizataldearen laguntza, identitate kolektiboaren izenean. Lan banaketa sinplea, lanaren espezifikazioa ez zegoenean. Industrializazioa eta gero, estatu modernoan, eguneroko eginkizun gehienak lanbidea dauka. Ikuspegi bat baino gehiago hasi dira. Horregatik elkartasun organikoa ematen da, identitate indibiduala sortzen da. Bigarrenean ordena soziala mantentzea zailagoa da.

Gizarte langintzari begira? Gizarte tradizionalako kide batekin lan egitean, perspektiba modernoaz esku-hartzen badugu, ez dugu ezer lortuko.

4.- Funtzio soziala: Durkheimen arabera zientziak objektibotasunaz ikertzearekin batera ezinbesteko funtzio bat du. Ekintza eta praktika sozialerako orientabideak ezartzea, hau da gizartearentzako gidariaren papera bete behar duela. Are gehiago, gizarte hobekuntzaren mesedeetan jokatu idealki ontzat har daiteke proposamen hau, baina planteamendu honek eragiten du hausnarketa, nor daki zer da onuragarria gizartearentzat.

5.- Aztergai nagusiak kontzeptu batzuk:

- Gizarte morala kontzeptua garatzen du, hurrengo gabea honi erantzuteko asmoz; gizarteak nola lortzen du antolamendu egoki bat eta ordena mantendu? Moral sozial kontzeptuan badauka erantzuna. Egile honen arabera, morala soziala da, ez baitago moral indibidualik. 'Gizakiak bere buruari ezartzen dizkion betebeharrak izatez berez gizartearekiko betebeharrak dira'. Honekin esan nahi du, gizartea arau moral multzo batez jabetzen dela taldearen biziraupena ziurtatzeko eta zentzu honetan moralaren funtzio nagusia gizakiak talde zabalago batean integratzea da. Alderantziz, baldin eta gizarte kideek, ez badute partekatzen komuneko moral bat, gizartea desagertzen da, kaos soziala sortzen delarik.

Marxekin konparatzen badugu ordea esaten du; 'ekonomia edo baliabide materialak eskuratzeko beharrezana dela eta ez gizarte morala, gizarte harremanak sortzen dituela eta ordenetan mantentzen dituena'.

- Lanaren banaketa mota, elkartasun sozial mota. Kontzientzia kolektiboa eta anomia kontzeptuak garatzen ditu hurrengo galdera hau azaltzeko; nola ulertu industria gizartearen antolaketa eta bere orden berria, behin gizarte tradizionalarekin konparatuta? Galdera honi erantzuteko, elkartasun soziala, lanaren banaketa eta kontzientzia kolektiboa aztertzen ditu. Durkheimen aztergaia zen lotura sozialek ulertzea hau da,

talde biritza iraunarazten den hori ulertzea zertan datzan zehaztean saiatu zen.

Lotura horri, elkartasun edo solidaritatea deitu zion eta haren izaera lan sozialaren banaketa edo 'la división social del trabajo' izeneko idazlanean garatu zuen. Hartarako zehaztu behar zen zer zen eta zertarako zen elkartasun, jakiteko nola solidaritate edo lotura sozial multzo horrek funtzionatzen zuen gizarte garatu modernoan. Gizarte primitibo edo tradizionaletan zegoenarekin alderatu behar zen, non gizarte mota batetik bestetako trantsizio historikoa azaldu behar zen. Orduan, idazlan horretan, bi elkartasun edo solidaritate mota bereizten ditu. Mekanikoa (gizarte tradizionaletan ematen dena) eta organikoa (gizarte modernoetan ematen dena, industria iraultzatik aurrera). Solidaritate hauek ezagutzea gizarte langintzan erabiltzen ditu, aurretik jakin behar delako, nolako gizarte dagoen bere erabiltzailean.

6.- ANOMIA: Gizarte tradizionaletik modernora, trantsizio gabeko aldaketak anomia ekartzen du. Durkheimen azterketa; industrializazioarekin betiko arau sistemak zentzua galtzen dute, ez dira arau berriak sortzen, eta gizarte noraezean gelditzen da. Gizarte ordenu batetik beste batera pasatzean, arauak balio ez dutenean. Fenomeno soziala da.

Eredu tradizionaletik, industrializaziora gertatu zen. Aldaketa soziala ematen denean; bai gizarteetan bai biritza zehatz batean. Biritza soziala erreferentzia gabe geratzen da. Kasuak, guda edo iraultzetan, aldaketa pertsonalak dibortzio edo heriotza kasu.

7.- "El suicidio" liburua: Estatistika frogatutako ikerlana, beraz modu zientifiko batean dago egina. Erabaki edo nahi pertsonalek, intimoenak ere eragin edo kausa sozial bat du. Suizidioaren adibidea erabiliz, azalpen soziologikoa eman nahi zion. Pertsona batzuk suizidioa egitera tendentzia gehiago dute besteak baino. Gizonak emakumeak baino gehiago, protestanteak katolikoak baino gehiago, dirudunak pobreak baino gehiago eta ezkondata ez daudenak ezkondukin konparatuz. Gerra garaian gutxiago, krisi ekonomikoetan baino. Pertsona bat isolatuta dagoenean, eta gizatalde batekiko parte ez denean joera handiagoa izango du.

Suizidio altruista; bere gizataldea, bere burua baino gehiago balio duenean. Nire biritza ez da oso garrantzitsua gizartearekin konparatuz.

2.2.3. Max Weber (1864 - 1920)

Weberren gizartearen teorian, ekintza sozialak garrantzia handia du. Bere ustez, soziologia ekintza sozialaren interpretazio-ulermenaz arduratzen den zientzia da. 'Interpretazioaren bidez, ekintza soziala ulertzen saiatzen den zientzia; horrela ekintza sozialaren garapena eta ondorioak era kausalean

azaldu ahal izateko'. Weberrek nahiago zuen errealitate soziala kontzeptuen bidez interpretatzea, Marxen ikuspegi historikotik eta Durkheimen ikuspegi positibistatik aldenduz. Weberren ustez, soziologiaren zereginak bi lan hauek batzen ditu; faktore sozialen egoeratan murgiltzea eta egoera horietako ekintzei ematen dizkioten zentzuaren interpretazioak ematea teknikak erabiliz. Azkenengo ikuspegi berri honekin, Weberrek korrante berria ireki zuen, interpretaziozko soziologia.

Durkheimek gizarte egitearen izenekoaren objektibotasuna azpimarratzen du. Weberrek ordea, subjektibotasuna eta subjektuen ekiteko ahalmena azpimarratzen du. Weberren ustez, soziologiaren aztergaia ekintza soziala izango litzateke. Bere hitzetan, giza ekintzen interpretazio soziala aztertzeo ahalmena da, soziologiaren abantaila eta berezko berezitasuna soziologiaren ikertzeo gaiak ez dira objektuak, giza elkar ekintzak baizik, eta pertsonekin baieztatu dezake errealitatearen behaketa. Weberren ustez soziologoek abantaila argia dute naturan zientzialarien ondoan. Lehenengoek errealitatea ulertzeo gaitasuna dute, baina zientzialariek ezin dute natura ulertu, atomo baten portaera ezin baitu errealitatea azaldu.

Bukatzeko, giza harremanak iraunkorrak direnean badira zenbait esanahi gizaki bakoitzarengandik espero denagatik. Ekintza berdinak ulermen desberdinak jasoko ditu testuinguruaren arabera.

1.- Obra garrantzitsua: Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua. Bertan protestantismo Kalbinistak bere baloreekin (ekimena eta indibiduala) kapitalismoaren garapenean funtsezko papera jokatu duen argudiatzen du. Protestantismoa eta bereziki kalbinismoak jainkoaren balore bihurtu zuen arrakasta materiala. Etika protestanteak erlijio jarrera bihurtu zituen indibidualismoa, bizimodu estua, aurrezkoa eta lanaren ohorea eta kapitalismo modernoaren sorrera eta garapena bizkortuko zituzten jarrerak dira horiek guztiak.

2.- Estratifikazio sozialaren teoria: Weberrek teoria horren barruan gizarte mailaketaren irizpideak ezarri zituen gizakiek komunitatearen barruan hiru elkarte mota osatuz modu hierarkiko batean:

1) Klasea: (Ekonomia arloa baldintzatzen du). Klase bat, merkatuan egoera berdina duten pertsonak osatzen dute. Hau da, merkatu batean elkartrukean antzerako gauzak eta ezaugarriak eskaintzen duten pertsonak. Gaurko gizartean, errenta izan daiteke klasea identifikatzeko irizpidea, eta horren arabera goi-erdi-behe mailak bereiziko ditugu.

2) Estatusa: (Arlo soziala baldintzatzen du). Subjektiboa da estatusaren definizioa. Pertsonak duen kokapen sozialaren gainean besteek egiten dituzten baloraketan hartzen direlako kontuan, beraz besteek egokitzen dute prestigio edo estimu soziala. Estatus egoera berdina dutenak, estatus talde bat,

bizimodu bereziak... egingo dituzte beren izaera azpimarratu nahian.

3) Partidua: (Politika arloa baldintzatzen du). Politika arloan dagokio kategoria.

	<u>Sailkatzeko irizpidea</u>	<u>Berezko ezaugarria</u>	<u>Adibidea</u>
Gizarte klasea	- Alderdi ekonomikoaren arabera, maila altua, ertain edo baxuan hierarkizatzen dira taldeak.	- Objektiboki baldintzatuta dago klase sozial bakoitzaren kidesuna, norberaren maila soziala neurtzen baitu, hau da, aberastasunaren, jabetzaren eta lanbidearen arabera bereziak.	- Langileak. -Burgesia txikia. - Administrazioako langileak, funtzionarioak, intelektualak... - Enpresaburuak eta jabe handiak.
Estamentua - Estatusa	- Prestigioa, begirune sozialarekin lotuta dagoen sailkapen hierarkikoa.	- Sailkapen hierarkiko altua edo baxua; besteek egindako ebaluazioaren menpe, eta ez pertsonen baliabide kuantitatiboen arabera. - Komunitate sentimendu indartsuagoa dakar estamentuaren kidesuna. - Estamentu bateko kide izateak bizitza estilo jakin bat dakar besteongandik berezia.	- Komunitate tradizionaletan; zaharrek dute maila gorena. - XX. mendera arte; noblezia, apaizak edo maisuek zeukaten maila gorena. - Gaur egun, ikuskizun munduarekin edo komunikabideekin lotuta egon daiteke. - Nobel saridun intelektuala. - Jabetza edo ekonomia altuko pertsonak.
Alderdia	- Boterea eskuratzeko interesetan oinarrituta.	- Komunitate sentimendurik indartsuena erakusten dute alderdiek. - Elkarte mota antolatuena da.	- Alderdi politiko bat. - Kirol klub bat. - Elkargo profesionala.

Gizarte langintzari lagungarria izan daiteke, egoera baten diagnosis egiterako orduan, taldeko eraginak erabiltzailean daukaten influentzia ikusteko. Frogatuko dugu zein lotura dagoen pertsona baten arazo eta klase sozialaren artean.

3.- Boterearen teoria: Bigarren aspektu hau dominazioarena da. ginte egiturak aztertzeko egintza sozialaren interes nagusiak zeintzuk diren aztertu behar ditugu. Legitimitatea da bere analisiaren hitz gakoa. Legitimazioa, menderatze harreman batean sinesmenek gauzatzen dute. Bere ustez, menderatze harreman guztiek legitimazio eredu jarrai dezakete. Hau da, menderatze horren klabea aurkitzea, horren arabera aginduak betetzeko probabilitatea igoko da. Horretaz gain, oinarri zilegi edo ez dituen ikusi behar dugu, agindua betetzeko arrazoi hori beldurra bada menderapena ez baitu balio. Bere iritziz aginteak hiru oinarri izan ahal ditu:

- Tradizionala: Obedientziak adin nagusitasuna du oinarri.
- Legala: ('Los subordinados aceptan el poder de acuerdo con sus motivaciones impersonales'). Gizarte modernoan berezko zilegitasuna litzateke. Bi euskarri ditu; gizarteak formalki ezarritako arau juridikoak eta burokrazia teknikoak, kapitalismo modernoko burokraziaren hedadura gizartearen arrazionalizazioaren ondorioz.
- Karismatikoa: ('Los subordinados aceptan el poder basados en la santidad, heroísmo o ejemplaridad de quien lo ejerce'). Zilegitasun mota bat da eta lider baten karisma pertsonalean oinarrituko da.

2.2.4. Harriet Martineau (1802 - 1876)

Lehenengo emakume soziologoa dugu. Honen ustez, gizarte bat behatzeko orduan beharrezkoa da aspektu guztiak azterzea, hala nola, soziologikoak, politikoak, erlijiosoak, e.a. Modu berean, emakumearen egoera ulertzeko ikuspuntu edo analisi sozialak egin behar zirelakoan zegoen. Horretaz aparte, ordura arte garrantzi handirik ez zuten gai edo egoera soziologikoak (bikote harremanak, seme-alabak, e.a) azterteaz arduratu zen, horiek guztiak begirada soziologiko batetik. Azken finean, Harriet Martineau anderearen ustetan, soziologoek behaketatik haratago joan behar zirela gizartearen onurarako eman daitezkeen. Hala ere, ezin dugu ahaztu Martineauk emakumeen eskubideen alde aldarrikatu zuela bere burua eta gainera Compteren pentsamenduak zabaltzen lagundu zuen.

Emakumeen eskubideen defendatzailea izan zen. John Stuart Millek 1866an lehen aldiz britainiar parlamentuan egon zenari emakumeentzako boto eskubidea eskatu zion eta Harriet honetarako lan handia egin zuen. Esklabotasunari aurre egin zion, zenbait perspektibatatik aztertuta: moralak, sozialak eta ekonomikoak. Bildumaren laugarren nobelan, *Demerara* izenburuarekin, zurien historia eta beltzen esklabotasuna eta esplotazioa erakutsi zuen.

2.3. IKUSPEGI SOZIOLOGIKO NAGUSIAK

2.3.1. Ikuspegi funtzionalista

Ikuspegi honetan gizartea talde sare bat bailitzan begiratzen da, hau da, kideen gehiengoak partekatzen dituen arau eta balore sail baten arabera, era guztiz ordenatuan parte hartzen eta diharduen talde sare bat bezala, alegia. Gizartea sistema iraunkor bat bezala biltzen da orekaranzko joerarekin; hau da, sistema eragile armoniatsu eta orekatu bati eusteko joera dauka. Honela, portaera arauak premiei erantzuteko sortzen dira eta galdu egiten dira premiak aldatzean.

Ikuspegi honen arabera, talde edo instituzio bakoitzak funtzio batzuk betetzen ditu eta funtzionala (= gizarteko kideentzat onuragarria) delako irauten du. *Esate baterako, eskolak haurrak hezi, lanerako prestatu, egunaren zati on batean umeak zaintzeko eginkizunak gurasoen ordean egin, eta komunitateari kirol ikuskizunak eskaintzen dizkio, besteak beste. Eskolako funtzio hauek hurrengo beharrak betetzen dituzte hurrenez hurren: gaur egungo produkzio sistemak duen langile espezializatuen beharra, ama/aita langileek duten ume kustiariaren/zainketa beharra eta aisialdirako entretenimenduak emateko beharra .*

Ikuspegi horren arabera, gizarte aldaketak gizartearen oreka iraunkorra hausten du, baina laster oreka berri bat lortzen da. *Esate baterako, seme alaba askoko familiak nahigarriak izan ziren ia historia guztian zehar. Heriotza tasa altuak ziren, eta familia handiek bakarraren batzuk aurrera ateratzea segurtatzen duten. Seme alaba asko izateak langileak, laguntza eta zaharren segurtasuna ziurtatzen zituen eta onuragarriak ziren gizabanakoarentzat nahiz gizartearentzat. Gaur egun, mundu superpopulatu batean, industrialki garatutako herrialdeetan batez ere, heriotza tasa eta lan fisiko zientzi eta teknologiaren garapenak murriztu egin ditu neurri handietan.*

Ondorioz, gaur egun eta gizarte mota hauetan seme alaba askoko familiak ez dira beharrezkoak (= ez dira funtzionalak). *Gizarteak bere premiak asetzeko ez du kide askorik izan behar zeren eta lan fisiko gehiena makinek eta teknologiak burutzen dutelako. Era berean, familia handiek funtzional izateari uzten diote zeren eta gero eta murriztuago diren baliabide naturalen banaketa arriskuan jartzen dutelako gizarte superpopulatuaren erosotasuna mehatxatzen dutelarik. Beraz, badago beste oreka bat, eta orain heriotza eta jaiotze tasa altuen ordean, tasa hauek baxuak izango ditugu. Portaera arauak gizarteko premiei erantzuteko sortzen dira eta galdu egiten dira premiak aldatzean.*

2.3.2. Gatazkaren ikuspegia

Funtzionalistak gizartearen egoera normala oreka iraunkorra dela deritzoten lekuan, Gatazkaren teorikoez pentsatzen dute gizartea etengabeko gatazkan aurkitzen dela talde eta klaseen artean.

Gizartea, boterearen eta irabaziaren aldeko etengabeko borroka prozesu bat bezala ikusten dute bertan maila askotako pertsonak lehiakide gisa azaltzen direlarik: klaseak, arrazak, naziotasunak eta sexuak barne. Gatazkaren teorikoez pentsatzen dute klaseen indarrak edo talde dominatzaileek gizarteari baturik eusten diotela. Funtzionalistak gizartearen lotura gisa ikusten dituzten balore partekatuek ez dutela osatzen egiaz benetako kontsentsurik baieztatzen du gatazkaren teoriak.; alderantziz, kontsentsua artifizia da, bertan talde edo klase dominatzaileek beren balore era arauak ezartzen dituelarik gainontzeko beste pertsona guztien gainean. Gatazkaren teorikoez diotenez funtzionalistak huts egiten dute galdetzean: funtzionalki onuragarria noizentzat ?

Gatazkaren teorikoez aurreiritzi kontserbatzaile bat leporatzen diete funtzionalistei, hauek uste baitute oreka armoniatu hau onuragarri dela guztientzat, bistakoa izanik batzuek saritzen eta besteak zigortzen dituela. Gatazkaren teorikoen arabera talde dominatzaileek esplotatzen dituzten taldeak isilarazten dituzte gizartearen oreka armoniatuaren izenean hitz egiten dutenean.

Funtzionalismoa eta gatazkaren teoria konparatu

Funtzionalismoak ezin du alde batera utzi esplotazioaren errealitatea, eta era berean, gizarteko arauak guztion onurarako ez direnik beti sortzen. Gatazkaren teoriak ezin du argudiatu aberatsen eta behartsuen interes guztiak beti kontrajarriak direnik, gizarte talde guztiek beren elkarbizitza eta biziraupenari aurre egiteko gutxieneko arau batzuk partekatzen dituztelako. Hala ere, ikuspegi biak kontuan hartu behar dira gizartearen ulerpen osorako.

2.3.3. Ikuspegi elkarrekintzailea

Mikrosoziologian erabiltzen den ikuspegia da gehienbat. Honen alde daudenen iritziz, pertsonak beraiek produktu sozialak izateaz gain, helburudun zerbait sortzaileak dira. Gizakiek gauzekiko edo besteekiko duten harremana beraien zentzu eta esanahietan oinarritzen da, Esanahi hori gizarte elkarrekintzatik sortzen da, eta horri egiten zaion interpretazioak alda dezake. Elkarrekintza sinbolikoaren jarraitzaileek metodo kualitatiboak erabili ohi dituzte, pertsonen beraien ekintzei ematen dieten zentzua ulertzeko teknikak baitira.

3.GAIA. Gizarteratze prozesua eta kultura

3.1. GIZARTERATZE PROZESUA

3.1.1. Gizakia: naturaren ala gizartearen produktua

Gizakia, ikuspegi soziologikoaren arabera, gizartearen produktua, produktu artifiziala eta ez-materiala da. Beraz kontuan hartu behar dugun ideia da, ezaugarri genetiko batzuekin jaiota ere, taldearen barruan bihurtuko garela gizaki. Naturak bere garrantzia dauka, genetikak gu nor garen zehaztuko du baina ez da faktore guztiz baldintzatzailea. Gizarteak ordea da gizaki egiten gaituena.

Gizakiaren jaiotzetiko gaitasunen garapena ezin da ulertu prozesu indibiduala ala naturala balitz bezala, beste gizakien arauetara moldatzeko prozesuaren bidez burutu ezean, gizakia bere osotasunean ezin da garatu. Gizakiaren ezaugarria da taldetik kanpo jaiota, itxuraz gizakia izan arren, ez ginatekeela gizakiak izango, zerbaitekin jaiotzen baikara baina gizaki egiten gara. Animaliek gu ez bezala, bizirauteko behar duten guztiarekin jaiotzen dira eta normalean haien instintuak jarraitzen dituzte, gizakion kasuan guztiz desberdina dela ikusiko dugu, guk jokabide asko ikasi egiten baititugu. Averongo “ume basatiaren edo Gennieren kasuan, beraien portaera animalia bezalakoa zen. Bi kasu hauetan, ez zituzten bereizten ongiaren eta gaizkiaren arteko ezaugarriak, ez baitziren kapazak beraien burua pertsona bezala ikusteko.

Pertsonok, jaio bezain laster, ez gara pertsona on edo txar bezala izaten, ez gara bakea edo gudaren aldekoak izaten, etab. Segun eta nolakoak diren gure gizartearen arauak, horrelakoak izango dira gure ohitura mentalak eta, ondorioz, gure pertsonalitatea. Gizakiak, senaren hutsuneak betetzeko, kultura sortu dute, gauzak zelan egin eta egoera bakoitzean zelan jokatu lagunduko dien herramintak.

3.1.2. Definizioa

Pertsona bakoitzak gizarteratzea deritzogun prozesuaren bidez bereganatzen ditu jarrera, balio eta bizitzako helburuak. Gizarteratzea, giza nortasuna duen pertsona bihurtzen duen ikaskuntza prozesu bezala definituko genuke. Beste modu batean esanda, gizarteratzea da norbera bizi den taldeko arauak barneratzen dituen prozesua, nortasun bat sortzen delarik. Kontuan hartu behar dugu bizitzaren hasieran ez dagoela nortasunik, eta 18 hilabetetik 2 urtetara, niaren kontzientzia sortzen du, bere buruaren ezaguera. Auto-irudiaren formazioa da agian prozesu indibidualik garrantzitsuena nortasunaren garapenean.

Lehen esan dugun bezala gizartetik edo taldetik kanpo giza nortasuna ez da

garatzen, gizarteratze prozesuak gizabanakoa kide den taldearen kultura ikasi eta barneratzeko jaiotzetik bizitzen den prozesua da, eta honi esker gizarte edo gizatalde batean belaunaldi batetik bestera transmititzen diren kulturak ia berdinak izango dira. G. Rocherrek honela definitzen du gizarteratze prozesua: *'hura zeinen bidez bere bizitzaren zehar gizakiak ikasi eta barneratzen ditu bere inguruan dauden osagarri soziokulturalak; elementu hauek esperientziaren eta agente sozial esanguratsuen eraginez bere nortasunean bereganatuz eta honela bizi behar den ingurune sozialera moldatuz'*.

3.2. GIZARTERATZE PROZESUAREN BI MEKANISMO NAGUSIAK

Gizarteratzea esan dugunez prozesu bat da. Gizakiok balio, portaera eta sinesteak barneratzeko bidea hain zuzen. Oraindik ere hainbat gauza jakitea falta zaigu, hurrengoetan gizarteratzean taldeak daukan garrantziaren inguruan hausnartuko dugu.

3.2.1. Paper sozialaren barneratze prozesua

Gizarteratzearen bidez jakiten dugu zer egin eta nola erantzun egoera sozial bakoitzean; zer itxaron bestearengandik, zer espero dute besteek gugandik. Baina gizakiak sozializazio prozesuan ikasten dituzten arau eta portaerak ez daude isolaturik, haien arteko loturak daude eta multzo tipifikatuak osatzen dituzte. Tipifikaturiko itxaropen hauek norbanakoak giza harremanetan dituen kokapen sozial ezberdinei dagozkie. Bakoitzak gizartean bere 'posizioa' betetzen du, hau da estatus bat dauka. Giza talde desberdinetan estatus desberdinak izan al ditugu, eta dagokigun kokagunean itxaropen edo funtzio desberdinak dagozkie. Ez dira portaera eta zeregin berdinak beteko eta rol eta paperak ere desberdinak izango dira.

Gizarteratzean ikasten ditugun rolak ez dira memoriaz ikasten. Rolak ez zaizkigu kanpotik artifizialki ezarritako arau bezala agertzen, aitzitik gure nortasunaren egituraren parte dira. Inposaketa ez da pasiboki eta nahitaez barneratzen den prozesua, gizakia ia automatikoki bereganatzen ditu ematen dizkioten ereduak.

3.2.2. Gizarteratzearen mekanismoak

Soziologiaren ikuspegitik prozesu eta mekanismoen dimentsio soziala azpimarratu da. Lau dira gizarteratze prozesuaren barruan dauden mekanismoak.

1.- Imitazioa: (G. Tarde) Sozializazioa gizakiaren berezko aktibitatearen ondorioa da. Haurra taldearen portaerara moldatzen da eta inguruan dituen rolak barneratzen ditu, imitazioaren bitartez. Gizakia, jaiotzen denetik,

imitatzeko joera automatikoaren produktua da gizarte-eraketa. Mentalki nagusien jokaera imitatzera bultzaturik aurkitzen da.

2.- Gizarte kontrola: (E. Durkheim) Nortasunaren izaera soziala, kontzientzi soziala eta taldearen presioa eta koakzioa duten eraginaz aritzen da, gizakia taldearen arauak jarraitzeko beharturik dagoelako. Gizakia pasiboki moldatzen da gizartera, ez baitzaio beste aukerarik gelditzen gizartetik at geratu nahi ez bada.

3.- Aprestizai soziala: Jaiotzean, haurren premiak oso sinpleak dira (jatea, edatea, lo egitea) eta denborarekin, haurra, oinarrizko arauak onartzen hasten da eta baita ere hauen arabera bere jokaera moldatzen. Rolak ikastera behartuta agertzen dira, baina portaera hau ez dira "era neutralean" agertzen. Geroago, arauak betetzea, ase-betetasun iturria bihurtzen zaio haurrari, arauak onartzera behartuta ikusten duelako bere burua eta hori burutzerakoan, nagusien munduarengandik aprobazioa, onarpena, asetasuna erdiesten duela konturatzen da. Aprestizai sozial hau eraginkorra izango da haurra motibatuta ageri denean, adibidez, nagusien pautak jarraitzerakoan eta nagusiek txalotu egiterakoan, jokabideen patroiak nagusitzen dira.

4.- Elkarrekintza soziala: (Charles H. Cooleyek eta George H. Meade) Bestearen barneraketa-prozesuaren beharra norberaren kontzientziaren eraikuntzan dago. Azken hamarkadetan, gizarteratze prozesuaren azalpen klasikoa gainditzeko beharra nabarmendu da, izan ere haurra parte aktiboa hartzen duelako bere garapen sozialean eta elkarren arteko interakzioan bakarrik haurra ez delako sozializatzen. Norberaren kontzientzia eratzeko, beharrezkoa da bestearena barneratzea, horrela niaren sorkuntza eta gizartearen aurkikuntza gertakari bera delako.

3.3. EGILEAK ETA ETAPAK

Kontuan izan behar dugu gizarteratze prozesuan ikasten ditugun rolak esanguratsuak direla talde barruan ematen direnean eta talde batean harreman egitura gertatzean eta helburu eta bizitza afektiboa konpartitzean. Beraz taldea da gizarteratze agente nagusia. Taldean estatus bat betetzen ikasten da, taldeak eskatzen du eskainitako baloreen onarpena eta taldeak berak kontrolatzen duelako nola betetzen diren rolak eta identifikazio sentimendua. Jakin beharra dago talde horien barruan garrantzia maila handiagoko eta txikiagokoa postuak daudela.

3.3.1. Sozializazio mailak

	Ezaugarri nagusiak	Adibideak
Lehenengo sozializazioa - Haurtzaroan	<ul style="list-style-type: none"> - Guraso eta familiak eginda. - Ikasitako guztia ia inkontzienteki barneratzen da. - Zama afektibo handiarekin lotura dauka. - Bizitzan zehar barruan irauten du oso sendo, zaila da aldatzen. - Rolak ezaugarri objektiboekin lotzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen semea izatea edo aitaren begikoa. - Kristaua.
Bigarren sozializazioa - Nerabezaroan	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola, kidesun taldea (nire berdinak), komunikabideek edo internet eta sare sozialak eraginda - Ikasitako guztia heldutasunerako prestakuntzari lotuta dago. - Kidesun talde bakoitza gizartearen mikrogizarte desberdinak irudikatzen ditu. - Eduki objektiboak ikasiz; rol inbertsonalak/ paper unibertsalak vs. partikularistak. - Gizarte kide guztientzat eskubide eta betebeharrak berdinak jokatzen ikasiz (arau berdinak). - Ezaugarri pertsonalak alde batera uzten ikasten; harreman helduak eta berdinak egiten. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle izan. - Hiritarra. - Lanbide bakoitzaren konpetentzia.
Hirugarren sozializazioa - Helduaroan	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da beti ematen. Bizitzan aldaketa sakona dela medio, talde soziokultural berrien bitartez edo erakunde itxien eskutik datorrena (kartzela, adin txiki egoitzak...). - Jatorrizko kultura (balioak, sinesmenak, bizimodua...) edo betiko kidesun taldea bertan behera ustentzen da; talde berri baten kulturaren murgilduz (pertsonalitate eta mentalitatea guztiz aldatuz). 	<ul style="list-style-type: none"> - Dibortzioa (batzuetan). - Etorri bakartiak. - Sekta edo kartzela. - Erakunde itxiak edo aldaketa pertsonal sakona.

3.3.2. Sozializazio agenteen sailkapena

1.- Familia: Dударik gabe hau lehenengo mailako sozializazioen talde garrantzitsuena. Bere baitan hasten da sozializazio prozesua. Aipaturiko sozializazio mekanismoak bereziki famili gunean gertatzen dira. Bere baitan bereganatzen diren portaera eredu tipifikatuak, oinarritzko balore-sistemak eta

erantzun emozionalen jarrerak, erreferentziatzeko puntuak dira gizarteak norbanakoari bidaltzen dizkion gainerako eragingarriak ulertzeko eta eratzeko. Familiak ez dio haurrari sustapen materiala bakarrik ematen, bere nortasuna garatzeko behar dituen baliabideak ere, hizkuntza adibidez.

2.- Pairen taldea: Familian bezala, hemen elkarrekiko harremanak, aurrez aurrekoa gertatzen dira. Talde honetan haurra besteen paperari esker kokatzen du bere burua. Hemen laguna, liderra edo baztertua izatera ikasten du. Talde hauetan gizakia libreago sentitzen da bere jarrerak eta iritziak adierazteko. Autoritatea ez dago hain egituratua.

3.- Eskola: Eskolaren sozializazio funtzioa ez datza soilik jakintzaren irakaskuntzan. Eskolak ere jarrera eta baloreak helarazten dizkio gizakiari, eta sarritan balore hauek irakaskuntzaren aritzeaz batera transmititzen dira.

4.- Komunikabideak: Sozializazio prozesu honetan gizakia entzule eta hartzaile pasibo bihurtzen da. Komunikabideek erraz jabetzen dira espazio sozialez, jende askori zuzentzen diote mezua eta duten funtzioa zeharo zilegitzailea da.

3.4. GIZARTEA, KULTURA, GIZARTERATZE PROZESUA

Kultura sarritan gizartearekin nahasia izan da, baina bi hitzek esanahi desberdina daukate. Kultura arau eta baliozko sistema bat da; gizartea berriz, *'giza talde bat da, erlatiboki independentea, iraunkorra, toki batean lekutua, kultura bat partekatzen duena eta bere elkargorik gehienak talde horren barruan dauzkana'*. Gizartea pertsonen instituzio bat da, bere harremandun elkargoekin, kultura ordea pertsonak dauzkaten arau eta balioen sistema. Bi kontzeptuen mugak nahiko nahasiak dira. Gizarte gehienek harremanak dituzte beste ondoko gizarteekin, era beran gizarte bakar batek kulturaz ezberdinak diren giza taldeak eduki ahal dituzte.

3.4.1. Kulturaren definizioa eta bere papera sozializazioan

Eduard Taylorrek definituta *'Kultura ezagutza, sinesteak, artea, morala, legeak, ohiturak eta gizonak gizarteko kide gisa bereganaturiko beste hainbat gaitasun biltzen dituen konplexu bat da'*. Hau da: gizarte bateko kideek sozialki ikasi eta partekatzen duten guztia da. Gizabanakoak gizarteko oinordekotzaren atal gisa hartzen du kultura, baina aldi berean, sar ditzake kulturaren hurrengo belaunaldien oinordekotzaren atala eta berrikuntzak ere.

3.4.2. Kultura mota eta bere osagaiak

Kultura bi multzotan sailkatu dezakegu:

- **Kultura ez materiala:** Jendeak erabiltzen dituen hitzetan, dauzkan ideia,

usadio eta sinesteetan, eta jarraitzen dituzten ohiturak dira.

- **Kultura materiala:** Objektu manufakturuak; tresnak, altzariak, automobilak, eraikuntzak, errepideak, zubiak edo erabilia izan daitezkeen edozein gai fisikoa. Kultura ez materialaren ondorioa da beti, eta aurrekoa gabe ez dauka zentzurik.

Kultur arau multzo bat dago portaeraren gainean, kultur irudi bat eta arau hauen sistema landua da; normalean uste edo espero diren sentitzeko eta jokatzeko erak, gizarte bateko kideek ezagutzen eta normalean jarraitzen dituztenak. Kultura ez materialaren osagai nagusiak hurrengoak izango dira (William Graham Sumner Folkways liburuan):

1.- Ohiturak: Talde bateko kideen ohiturak dira, ohiko portaera normala eta betikoa. Elkarte bizitza arazoz josia dago eta gizakiok egoera hauei aurpegi emateko zenbait soluzio edo portaera hautatzen ditugu. Gizarte ezberdinek era askotako portaera bideragarriak aurkitu dituzte, eta horregatik esan dezakegu herrien arteko ohiturak desberdinak direla. Gizarte talde batek, portaera bat, premia berezi bat asetzeko ohizko era onartzean eta horren errepikaketaren ondorioz sortzen dira ohiturak. Ohitura horiek, normalki, ondorengo belaunaldiei pasatzen zaizkie. Belaunaldi berriek bere egiten dituzte ohiturak, haurrek askotan molde hori ikusita, egiazko molde bakartzat hartzera heltzen dira.

*Gabonak ospatzea. (Betiere era erlijioso edo erlijioso batean egin daitezken arren).

*Herriko jaiak ospatu /antolatzea.

2.- Tradizioak: Ohitura batzuk, besteak baino garrantzitsuagoak dira, ohitura batzuk tradizio bihurtu daitezke. Ideia sendoa da, ongiaren eta gaizkiaren inguruan egintza batzuk egintzen eta beste batzuk debekatzeko dituenak. Tradizioak, sakratuak izan daitezke, bai erlijio aldetik, bai sendotutakoan, lege aldetik. Tradizio hauek pertsonaren burua balioetsi eta betikotzen dute askotan, eta hauek zalantzan jartzea lotsagabekeria edo horiek haustea barkaezina litzateke. Gazteei, gehienetan, tradizioak irakasten zaie, asimilatzeraino, hau da: gauza bat ikasi eta onartzea, era inkontziente batean gure erantzunen parte bihurtzeraino. Osorik asimilatzean, tradizio horiek portaerak kontrolatzen dituzte, psikologikoki debekaturik dauden egintzak burutzea oso zaila bihurtzen delarik. Askotan irrazionalak direla pentsa dezakegu. Gazteok asimilatzen joaten dia.

*Burka/zapiaren erabilera.

*Zenbait janari edo produktu ez jatea (islam-aren kasuan).

3.- Instituzioak: Ohitura eta usadio multzoa da, giza eragiketa garrantzitsu batean oinarriturik dagoena. Giza harremanen sistema antolatua, balio eta

ohizko prozedura batzuk gorputzeratzen ditu eta oinarrizko giza premia batzuk betetzen ditu. Instituzioak gizarte bateko araurik formal eta premiazkoenen artean aurkitzen dira, aktibitate garrantzitsu bat inguratzen duten ohitura eta tradizioak betebeharrezko sineste eta portaera sistema batean antolatzen direnean, instituzio bat garatu da. Gizarte konplexuetan oinarrizko 5 instituzio nagusi daude: familia, erlijioa gobernua, hezkuntza eta ekonomi aktibitatearen antolakuntza.

*Enpresa pribatua (ekonomiaren barruan instituzio bat da).

*Eliza (erlijio jakin baten sinesteak eta jokabideak onartzen dituen pertsonen erakundea da).

4.- Legeak: Legeak tradizioak indartzeko balio duena da; hau da, nahiz eta zenbait pertsona tradizioak obeditzen dituzten "bidezkoa" dena egin nahi dutelako, baliteke beste pertsona batzuk zigor baten mehatxupearan daudelako obedituko lituzkeela tradizio horiek. Soziologiari dagokionez, legeen analisia egiterako orduan 2 ikuspegi nagusitzen dira: *ikuspegi funtzionalista* (legearen azterketa tradizioen adierazpen gisa ikasten duena) eta *gatazkaren ikuspegia* (legea boteretsuen tresna gisa eta botererik ez daukatenak kontrolatzeko erabilia dela ikusten duena). Bi ikuspegi hauek zuzenak dira, gizarte konplexuetan legeak tradizioak ezartzen eta gizarte sistema babesten duelako, eta badaudelako zenbait pertsona besteak baino pribilegio gehiago dituztenak.

*Eskolara joatea. (Zenbait familiatan izan ere, legea erdian ez balego, ez lituzke beraien semeak eskolara bidaliko).

*Konstituzioa (Zenbait legeen multzoa da).

5.- Balioak: Tradizioak ea egintza onak ala txarrak diren argitzeko ideiak dira. Balioak, esperientziak garrantzitsuak edo ez-garrantzitsuak diren argitzeko erabiltzen diren ideiak dira. Gizarte bakoitzarentzat balio desberdinak izango dira garrantzitsuak. Gizarte xumeko kideak normalean bat datoz balio multzo baten gainean, gizarte konplexuek aldiz balio sistema kontrajarriak garatu ahal dituzte.

*Bakea. (Europar balio garrantzitsutzat hartzen dugun bitartean, zenbait lurralde okupatuetan negatiboa izatera bihur daitezkeelarik, guda nagusitzen duelako).

*Bortizkeria. (Nahiz eta gure erlijio /sinesteetan negatiboa negatiboa izan, Hooligans sinesteak dituztenentzat bortizkeriaren erabilera balorea izango litzateke).

Orain azaldutakoa hobeto ulertzeko hurrengo ariketa praktikoa landuko dugu:

		OHITURA	TRADIZIOA	LEGEA	BALIOA	ERAKUNDEA
1	BATAILOA	X	X			
2	GABONAK OSPATZEA	X	X			
3	FUTBOLA	X	X		X	
4	BORTIZKERIA				X	
5	ESKOLARA JOATEA			X		
6	OPORRETAN BIDAIK EGITEA	X	X			
7	POTEA HARTU	X				
8	TALDEKO LIDERRA JARRAITU	X	X			
9	HERRIKO JAIK	X	X		X	
10	KONSTITUZIOA / ESTATUTUA			X		

ARGUDIOAK:

- 1) **BATAILOA:** Gu fededun ez bezala ohitura bezala ikusiko dugu, hau da ohiko portaera normala eta betikoa bezala. Baina fededunak direnzentzat haien tradizioen barne ideia sendo bezala sartuko litzateke.
- 2) **GABONAK OSPATZEA:** Gu fededun ez bezala ohitura bezala ikusiko dugu, hau da ohiko portaera normala eta betikoa bezala. Baina fededunak direnzentzat haien tradizioen barne ideia sendo bezala sartuko litzateke.
- 3) **FUTBOLA:** Ekintza horrek, ohitura, tradizio eta balioen multzoa osatuko du. Baina ez dago hor giza premia asetzekoa, beraz ezin da erakundea izan.
- 4) **BORTIZKERIA:** Balio barruan kokatzen dugu, ekintza ona ala txarra den adierazten duen ideia delako. Mendebaldeko ikuspegitik begiratuta balio negatiboa izango litzateke.

- 5) **ESKOLARA JOATEA:** Mendebaldeko gizartean, derrigorrezko eskolaratzea 16 urte bete arte dago ezarrita. Unibertsitate garaia adibidez ohitura bihurtuko litzateke, gizarte bateko ohiko portaera delako.
- 6) **OPORRETAN BIDAIK EGITEA:** Gure gizartearen barruan ohitura bezala ikusiko genuke, oso portaera normala baita oporretan bidaiatzea. Familia batzuen barruan, leku zehatz batera urtero joatea tradizio bihurtu daiteke.
- 7) **POTEAK HARTU:** Ohitura moduan sailkatzen dugu, lagun multzo artean egiten dugun ekintza ohiko eta normal bezala interpretatzen dugulako. Horretaz gain errepikaketaren ondorioz sortzen da.
- 8) **TALDEKO LIDERRA JARRAITU:** Pertsona multzo baten premia berezia asetzeko ohiko portaera normala izanik, ohitura bezala ikusten dugu. Errazagoa da pertsona bat jarraitu, kopiatu, esaten duena egitea, norberak erabakiak hartzea baino. Balio, estatus bat sustatzeko balio du. Gure gizartean sozialki transmititzen den tradizioa da.
- 9) **HERRIKO JAIK:** Pertsona multzo batek premia berezi bat asetzeko ohiko portaera normala izanik, ohitura bezala ikusten dugu. Horretaz gain jai herrikoiak normalean hainbat balio desberdin sustatzeko helburua daukate, parte hartzea, elkartasuna eta laguntasuna besteak beste. Gure gizartean transmititzen den tradizioa da.
- 10) **KONSTITUZIOA / ESTATUTUA:** Tradizioak edo boterean daudenen jarraikortasuna indartzeko balio duena izanik eta hori ez betetzekotan mehatxupean egonda jakinda zenbait legeen multzoa da.

3.5. SOZIALIZAZIOA ETA KULTURA FENOMENOAK

Gizareratzea eta kultura zer diren behin jakinda, beste ideia berriekin hasi gaitzke.

3.5.1. Enkultrazioa eta akultrazioa

- **Enkultrazioa:** giza nortasuna duen pertsona bihurtzen duen ikaskuntza prozesua da eta gizartearen arau eta balore-sistema baten barnerapenean datza, gizarte horretan integratzeko asmoarekin. Bizitzaren hasieran ez dago nortasunik: hau da, organismo fisiko bat existitzen da, baina ez pertsonaren zentzurik. Giza nortasun hau gizartetik edo taldetik kanpo garatzea ezinezkoa da, izan ere, honen ondorioz atzerapenak dituzten pertsonak, antisozialak edo asozialak

diren pertsonak aurki ditzakegu. (Genieren kasua)

- **Akulturazioa:** talde sozial batek berezko kultura alde batera uztea eta beste talde sozial batera edo beren kulturara moldatzean datza. Ondorioz, talde sozial honen identitatea guztiz aldatzen da. (Kolonizazioa adibidez).

3.5.2. Azpi-kultura eta kontrakultura

Gizarte guztietan, kultura orokorra edo dominatzailea, gizarte baten gehiengoak konpartitzen duena, eta kultura horren parte bat partekatzen ez duten pertsona taldeak aurkituko ditugu. Bakoitza bizi estilo desberdinak ditu eta modu hierarkizatuan bereizten ditugu. Bi kontzeptu garrantzitsu hauek bereizi ahal ditugu:

- **Azpi-kultura:** (batzuetan hiri-tribua ere deiturikoa) gizarte baten kultura orokorrarekin elkartutako portaera arauen multzoa da baina hala ere, harengandik bereizten dena. Ohitura, estetika, jarrera, hizkera edota sinesmen desberdinak eta, neurri batean, autonomoak dituen giza talde da, gehienetan hirietan garatzen dena.
- **Kontrakultura:** azpi-kultura bat da ezberdina ez-ezik, zehazki kontra-jarrera aktiboan gizartearen kultura dominatzaileari dagokionez; hau da, kontra-kultura, kultura nagusiaren kontrako mugimenduak dira. Kontrakulturek gizarte aldaketa asko sortzen dituzte, etorkizuneko edo iraganeko kulturak izatera heldu daitezke.

3.5.3. Kultur erlatibismoa eta etnozentrismoa

Argi dago ezin izango dugula beste talde edo kulturen ekintzak ulertu, gure motibo eta balioen ikuspegitik aztertzen baditugu; portaera eta kultura horiek, haien motibo, ohitura eta balioen argitan interpretatu beharra daukagu ulertu nahi baditugu.

Kultura erlatibismoak adierazten du ezaugarri baten funtzio eta esanahia bere ingurugiro kulturalari lotuta daudenean. Ezaugarri bat berez ez delako ez ona ez txarra. Egoera edo gertakari zehatz bat bere testuinguruan kokatu behar dugu ongi ulertzeko.

Etnozentrismoa ordea, gauzak ikusteko modu bat litzateke, norberaren taldea guztion erdigunean kokatzen da eta erdua da beste talde guztiak neurtzeko eta sailkatzeko orduan. Gure kulturaren ikuspuntutik, sailkatzen ditugun besteen balio, portaera edo sinesteak on eta txar bezala. Modu berdinean, kultura horiek aurrerakoi edo atzerakoi bezala sailkatzen ditugu gurearekin konparatuz.

4.GAIA. Estatusa eta rola

4.1. ESTATUSA

Estatusa pertsona batek gizartean daukan posizioa edo maila da. *Rola*, estatus jakin bat lortu duenarengatik espero den jokabidea litzake. Pertsonak hainbat estatus bete ahal ditu eta horien barruan rol desberdinak ere bete. Zentzu batean estatusa eta rola fenomeno beraren alderdiak dira. Estatusa, eskubide eta erantzukizun saila da, rola berriz, erantzukizun eta eskubide horien jarduera da.

Estatus multzo hitzak esan nahi du pertsona batek bere bizitzan zehar hainbat paper betetzen dituela, ez da batera mugatzen; *rol multzoa* estatus batek rol bakarra ez daukala adierazteko erabiltzen da, elkar loturik dauden rol sailak baitira. Jakin behar dugu arau batzuk, gizarte bateko kide guztiei ezartzen zaiela, baina badaude bakoitzaren estatusaren arabera aldatzen direnak ere. Estatus bati dagokiona askotan ez dagokio beste estatus bati.

4.1.1. Gizarteratzea estatusen bidez

Pertsona bakoitzak bere estatus eta rola betetzen ikasi beharra dauka, estatus hauei dagozkion rola edo portaerak ikasteaz gain, bi alderdi suposatzen ditu; lehenengoa, estatusen erantzukizunak betetzen eta eskubideak eskatzen ikasi, eta bigarren, estatusari dagozkien jarrerak, sentimenduak eta itxaropenak lortu behar ditugu.

Gehienetan, esperientzia hau garaiz hasten da, haurtzaroan. Umeak jolas eta jostailu desberdinen bitartez haien etorkizunean beteko dituzten ekintzak burutzen hasten dira. Gainera nagusien erreferentzia daukate hori jarraitzeko. Esperientzia guzti honetatik, haurrak irudi bat osatuz joaten dira eta honek haien jokatzeko era zehaztuko du.

4.1.2. Estatus atxikiak eta lortuak

Kokapen soziala gizartean daukagun lekua da, bakoitzari dagozkion eskubide eta betebeharrekin. Gizaki bakoitzari atxikitzen zaion balorazio sozialarekin lotuta dago. Bi estatus mota daude:

- **Estatus atxikia:** Jaiotzetiko ezaugarrien arabera ezarritako statusa da, gizabanakoaren hobespena, ahalmena edo baliabideak kontuan hartzen ez dituen. Pertsonari adinaren, sexuaren, arrazaren edo beste jaiotzetiko ezaugarri baten arabera atxikitzen zaion kokapen soziala da. (ADIBIDEZ: umea edo zaharra, gizona edo emakumea, zuria edo beltza ...). Erregea pribilegioekin jaio da eta berdina merezi dituen ala ez, edo bere jarduera ongi betetzeko kapaza den hala ez. Adina bakoitzari

atxikitzen zaizkion betebeharrak edo eskubide zehatz batzuk umeei helduarekiko obedientzia, 16 urte arte lan ez egiteko (helduei balorapen sozial handiagoa atxikitzen zaie gazteei, umeei edo zaharrei baino).

- **Estatus lortua:** Gizabanakoaren hautaketaren, ahaleginen edo ekintzaren bidez lortutako estatusa da. Gizabanakoak bere merituei esker eskuratzen dituen kokapen eta balorapen soziala, izan ere. (ADIBIDEZ: lehendakariari atxikitzen zaizkion boterea lortu du, egindako ahalegin edo merituei esker).

4.1.3. Estatusaren arteko tentsioak

Rol edo paper soziala estatus jakin bat betetzetik espero den jokabidea da. Onena litzateke pertsonak bakoitzak dauzkan estatus guztiak erraztasun berdinez bete ahal izatea, baina gutxi dira honetarako gai direnak. Estatusen arteko tirabira aipatzean rolak eskatzen dituen erantzukizunei aurre egiteko pertsonak dauzkaten zailtasunez ari gara. Hainbat arrazoi edo zailtasun agertzen dira kasu batzuetan:

1.- Prestakuntza desegokia estatusarekiko: Gizarteratze jarraipen bat jasaten ari da, gerora beren bizitzarako aro batean erabili ahal izango duen trebetasunak ikasiz. Bizitzako etapa bakoitzeko esperientziak prestakuntza eraginkorrak dira hurrengo etaparako, gizarteratze jarraipen honetan arazoren bat badago prestakuntza desegokia agertzen da. Rol sozialen barneratze prozesuan edukiarekin lotuta, kultura ideala erakustean eta ez kultura erreala. Esaterako, gizarteratze jarraipenean arazo bat gertatzearen ondorioz, gazteak eszeptiko bihurtzen dira testu liburuetakoa aholkuek funtzionatzen ez dutela ohartzean.

2.- Zailtasunak estatusaren iragapenean: Estatus bat utzi edo galtzean eta beste estatus bat hartzean. Askotan gure gizarteak ez dauka argi mugatuak adinari lotuta daudenak. Hainbat adibide: gaztetasunetik heldutasunera igaro, langile izatetik jubilatzerara, gurasoen babesetik independentzia propiora pasatzean, guda edo gatazka momentutik bakea lortzea edota gaixotasun kroniko bat jasatea.

3.- Estatusen gatazkak: Bi estatusak edo gehiagok betebeharrak gatazkatsuak ezartzen dizkie pertsona bati. Zelan jokatu gertaera baten aurrean ideia desberdinak daudenean.

Porrota estatusaren jardueran

Porrota oso mingarria balden bada, gaixotasun fisiko edo psikoak izan daitezke. Gizarte egonkor batean, estatusak zuzen betetzen dira pertsonak horretarako prestatuak izan direlako haurtzarotik. Baina azkar aldatuz doan eta guztiz integratua ez dagoen gizarte batean helduentzako estatusa aurrean ezin

dutenetan eta estatuserako prestakuntza etenaldiek mugatzen dituztenean, ezinbestekoak dira porrot ugariak estatusen eta rolen jardueran.

4.2. GIZARTE ESTRATIFIKAZIOA

Soziologiak 'gizarte estratifikazio' terminoa erabiltzen du gizarteetan eta gizarte taldeen artean dagoen desberdintasunen arabera egitura iraunkorrak egituratzeko. Gizarte estratifikazioarekin lotuta aztertzen dira; a) Aberatsen eta pobreen arteko aldeak, sarrera ekonomikoetan eta bizi baldintzetan, b) Pertsona langabeen pobretzea, c) Emakumeek, gizonen aldean, jasan behar dituzten eragozpenak, d) Langile familian sorturiko gizabanako batek denboraren emanean klase ertaineko kide bihurtzeko dituen aukerak, gizarte higikortasunaren fenomenoak, goranzko mugikortasun soziala ala beheranzko ...

Gizarte estratifikazio terminoak modu hierarkiko eta mailako batean eta gizarteko behe eta goi mailaz hitz egiten du, aberastasun, botere edo prestigioaren jabetzaren banaketa desberdina eta adin, sexu, arraza edo erlijioaren arabera mailaketa aintzat hartzen duelarik. Maila bakoitzeko kideek bizitza aukera jakin batzuk izan ditzake, baita pentsatu, jardun eta sentitzeko modu berdin samarrak izateko joera ere, eta identitate eta kidesun komuna dute beren estratuko gainerako kideekin. Ezaugarri horiek bereizten dute estratu bakoitza gainerako estratuetatik.

4.2.1. Gizarte estratifikazioak historian zehar

Bost gizarte estratifikazio mota nagusi bereizi ohi dira, hau da, bost multzo nagusietan sailkatu ohi da gizarte estatuen arteko desberdintasuna historia ingurune eta kultura desberdinen arabera. Halatan, bost gizarte eredu nagusi bereizten dira:

1.- Antzin Aroko ereduak dagokie lehen gizarte ehiztari biltzaileei; haietan funtzio magikoen titularitatea eta giza nortasunaren ezaugarri batzuk, ziren gizarte desberdintasunerako faktoreak, indarra eta trebetasuna. Oinordekotzan oinarrituak ziren eragin handieneko estratuak, buruzagia eta txamana adibidez. Gizarte konplexuagoetan, lanerako metalezko tresnak eta lurgintza teknikak ezagutzen zituzten gizarte laborarrietan ugariagoak ziren desberdintasunak eta hiru taldetan sailkatzen ziren; sistemaren erpinean gizabanako boteretsu eta pribilejiodun gutxi, besteek ekoizten zituzten soberakinez jabetzen zirenak, haien azpian funtzionario eta espezialista klase jendetsuagoa eta oinarrian herri xumea, soberakinen ekoizleak.

2.- Botere politikoa, Ekialdeko Despotismoaren arabera sistemaren oinarritzko estratifikazio elementua. Ekialdeko inperio handietan (Txina, India, Mongolia, Egipto...) baita Kolon aurreko Afrika eta Ameriketako ere. Botere absolutu batek

gidatzen zuen estatua eta burokrazia boteretsu bat arduratzen zen administrazioaz, klase gobernaria. Azpian zeuden mendekoak, ez zeukaten pribilejiorik eta estatuarentzako lanen bat egiteko prest egon behar zuten beti.

3.- Kasta sistema, gizarte hinduaren arabera desberdintasun sistema, familia baten aurrekoak eta ondokoak kontuan hartzen dituen gizarte estratuaren ideia adierazi nahi zuten haren bidez. Lau barna edo hierarkia dituen kasten arabera estratifikazioak; brahmanak edo apaizak, txatriak edo gudariak, vaisiyak edo merkatariak eta sudrak (laborariak, langileak, zerbitzariak). Kasta bakoitzak aurretik nola bizi behar duen baldintzatzen du, eta araztasuna eta zikintasuna bereizten dituen ideia erlijiosoetan oinarritzen da. Beren kastatik kanporaturiko gizabanakoek kasta gabeen edo ukaezinen taldea osatzen dute. Mendebaldeko bizimodua eta pentsamoldea errotzen ari dira gizarte hinduan eta gizarte aldaketa honek kolokan jarri dezake sistema honen egonkortasuna.

4.- Estamentu sistema Erdi Aroko Europan, gure garaiko industria estatuetako aurrekoa. Feudalismo deritzo erlazio sistemari, eta luraren jabetza da oinarria. Lur jabetza handia zen feudoa eta jauna zen haren jabea. Jaunaren mendekoak lotuak zeuden landu beharreko lurri eta diru kopuru batzuk ordaintzen zizkieten jaunari ordainean lurra landu eta babesa lortzen zuten. Erregea edo enperadorea zegoen erpinean. Bi oinarri nagusi zituen gizarte funtzioen banakuntzak: alde batetik, leialtasuna zin egin behar zion mendekoak maila goragoko jaunari eta bestetik, aldi berean aitortu behar zuen mendekoak zinaren arabera bete behar beteko zituela ezinbestean. Hirien hazkundera, industria ekoizpen gero eta handiagoa, merkataritza gero eta zabalagoa, aldaketa ideologiko sakonak urratu egin zituen gizarte feudalak kapitalismorantzko bidea.

5.- Klase sistema, oso lotuta dago industria kapitalismoak XIX. mendetik egun arte mendebaldeko gizarteetan bideratu duen garapen, zabalkunde eta bilaketa prozesuarekin. XIX. mendean zabalduta zen klase hitza gizarte mota berria adierazteko, hitz horren etimologiak Erromako inperioaren garaietara garamatzen arren. Izan ere, estatuari ordaindu beharreko zerga kopuruaren arabera banatzen zuten erromatarrek populazioa, eta gizarte geruza bakoitza adierazteko erabiltzen zuten, klase hitza. Talde ekonomiko gisa definitzen dira klaseak eta aberastasuna, errenta soldatak, etekinak, lanbide mota eta boterea banatzerakoan aintzat hartzen den desberdintasunaren arabera hierarkia eta ordena egitura dugu klase sistema.

4.2.2. Teoriak

Bestelakoak izan dira soziologoek gizarte desberdintasuna sortzen duten eta, horrenbestez, gizarte kapitalistetako klase sistemak egituratzen dituzten, Karl Marx eta Max Weber izan dira tradizio teoriko nagusien aitzindariak. Teoria horiez gain aipagarria da Pierre Bordieuren ekarpena. Bere libururik

famatuenetariko batean 'La distinción', gizarte klasearen kontzeptua zehazterakoan, bereziki azpimarratzen ditu taldeen kontsumo ereduko, kultura eta bizimodua, jabetzaren eta ekoizpenaren bitartekoen kontrolarekin konparatuta. Halatan, bizi baldintzen arabera bereizten diren gizarte taldeak ira Bourdierenean gizarte klaseak, eta osagai hauek bereizten ditu bizi baldintzen artean: gizabanako edo giza talde batek daukan kapital ekonomikoa, edo baliabide ekonomikoak (diru, sarrera, ondasunak.), eta kapital kulturala, batez ere heziketaren bidez hartua, kapital ekonomikoa ziurtatu edo hartarako sarrera erraz dezakeelako.

Orain bere bideoan klasean egin genuen ariketa praktikoaren ideiak aurkituko ditugu:

"La sociología es un deporte de combate"

Bourdieu soziologiari desberdintasun sozialen inguruan galdetzen diote, ea horiek beharrezkoak diren. Berak soziologo bezala horrelako galderak erantzun ezin dituela esaten du. Politikarientzako egindako galderak dira, balio eta ideologian oinarrituak eta bera zientifikoa izanda ikerketa frogagarrietan oinarritu behar da. Hala ere bakoitzak indibiduo bezala bere iritziak eman ahal ditu, gizaki bakoitzak bere perspektibatik ikusiko ditu egoerak; gauzak ongi edo gaizki egongo dira bakoitzaren ikuspuntuaren arabera. Beraz norberarena ondo badago ikuspuntu guztiak ongi daude. Aurreko ideiarekin lotuta "soziologia defendatzeko erabili behar da, kolpe baxuak eman gabe".

Azaldu agertzen diren kontzeptu nagusiak. "la dominación masculina" liburuan.

Emakumearen kontrako indarkerian ideia garrantzitsuena dominazioa da. Bideoan ikerketa baten ondorioa agertzen da: emakumeak gizonak baino gehiago aritzen dira telefonoz. Iritzi arruntaren kontra doa, askotan hori arrazoitzeko emakumeei txutxumutxu soila gustatzen zaiela esaten baita. Baina arazo guzti hori baino konplexuagoa da, emakumeek funtzio benetan garrantzitsua betetzen dute, arlo "domestiko" eta afektiboa jorratuz, taldearen funtzionamendu egokiaz eta kideen arteko harreman sozialez arduratzen dira.

Horretaz gain biolentzia fisikoa (arloan pribatuan gertatzen dena) eta biolentzia ekonomikoa (lanaren eragin zuzenetik datorrela) existitzen dira eta arazo handia sortzen dute. Baina askotan emakumeari kalte egiten dion beste egoera batetik ahazten gara, biolentzia sinbolikoaz hain zuzen ere. Emakumea modu inkontzientean horretan parte hartzen du eta horregatik da zaila identifikatzen. Maskulino eta femeninoaren dikotomian sartzen garenean gertatzen da, biolentzia ez da etxean soilik gertatzen, estatuan ere badago. Borrokatzeko espazioa estatua ere bada beraz. Emakumeak gehienetan, gizarte zerbitzuetara daude bideratuak, gizonak ordea zerbitzu horien gainetik dagoen finantza sistema gobernatzen dute. Beraz, eremu publikoa defendatu behar

dugu biolentzia mota hori ekiditeko, femeninoa eta emakumearena dena ez zapaltzeko.

5.GAIA. Gizarte aldaketa

5.1. NOLA GERTATZEN DA GIZARTE ALDAKETA

Aldaketa soziala gure gaur egungo gizartean etengabe gertatzen den fenomeno da. Bi jarraibide sozial desberdin ditzakegu, alde batetik estatikoak, estatus sozialak, rol sozialak, estratifikazio soziala eta instituzio sozialak direnak eta bestetik dinamikoak, gizakien jarrerak eta beharrianak, teknologiaren berrikuntzetatik, hirien zabalkuntzara doazenak. Hauek guztiak aldaketa sozialaren dimentsioak dira, kulturaren eta instituzio sozialaren transformazioa denboraren poderioz. Gizarte guztiak aldatzen dira etengabe, eta aldaketa honen inguruan teoria ezberdinak aurkitzen ditugu, eboluzionista, ziklikoak, funtzionalistak edo gatatzakarena...

Aldaketa soziala leku guztietan gertatzen da, nahiz eta horren erritmoa aldatzen den leku batetik bestera. Gizarte batzuek beste batzuek baino azkarrago aldatzen dira eta batzuetan gizarte berdin batean ere elementu kultural batzuek modu azkarrago batean aldatzen dira beste batzuekin konparatuz. Esan beharra dago aldaketa soziala nahita eginiko zerbait izan daitekeela, baino gehienetan planifikaturik ez dagoen aldaketan izaten dira.

Aldaketa sozialak, bestetik desadostasunak eragiten ditu. Izan ere aldaketa hauen ondorioak positiboak zein negatiboak izaten dira. Azkenik, aldaketa sozial batzuk beste batzuk baino garrantzi handiagoa dute. Aldaketa hauen artean, batzuk izaera igarokorra dute, hau da bizitzaren aldi batean soilik ematen direnak (arropa) eta beste batzuek ordea hainbat generazioetan zehar irauten dute, (telebistaren agerpena).

5.2. ZEINTZUK DIRA ALDAKETA SOZIALAREN KAUSAK

Aldaketa sozialak hainbat kausa eta faktoreen eraginez ematen dira. Kulturak, etengabe elementu berriak bereganatzen ditu, beste zenbait alde batera uztearekin batera.

1.- Asmakuntza: Objektu, ideia eta harreman sozial berriak. Propulsiio bidezko sutzirien ikerketari esker adibidez, hainbat ibilgailu berri eraiki izan dira zeinekin espaziora bidaiatu daitekeen. Gaur egun zerbait normal moduan ikuste dugu asmakuntza hori eta posible da hurrengo mendean jende asko espaziora bidaiatu ahal izatea. Izan ere, ezaugarri kultural berriak aurrerakuntzari esker

azaltzen dira.

2.- Aurkikuntza: Lehen aldiz munduan dauden elementu batzuen aurkikuntza egiten denean ematen da. Esaterako, medikuntzan egon diren aurrerapenak, giza gorputzaren inguruko ezagutza handitzea ahalbidetu digute, bizi itxaropena handitzearekin batera.

3.- Zabalkuntza: Zabalkuntzak hainbat aldaketa suposatzen ditu. Merkataritzak, migrazioek eta komunikazioek elementu kultural desberdinak mundu osotik zabaltzea eragiten dute. Adibidez, arropak Asian eginak dira eta monetak, Turkian. Ikus dezakegunez, munduan zehar zabaltzen diren elementu kulturalak dira.

4.- Gatazka: Gatazken eraginez ere, hainbat aldaketa ematen dira. Marxen aburuz, klaseen arteko gatazkak ziren aldaketa sozialak eragiten zutenak. Gatazka sozialak, desberdintasunaren produktuak, gizartean aldaketak suposatuko lituzkeela aurreikusi zuen baita gurean ere.

Aldaketa sozialarekin amaitzeko, aipatzekoa da berrikuntza guztiak ez direla onartzen. Izan ere, berrikuntza elkargarriak errazago onartzen dira ezarritako kulturaren ezaugarri garrantzitsuenekin kontrajarriak direnak baino. Badakigunez, aldaketaren ondorioak amaigabeak dira, aurkikuntza gehi asmakizunak, konponbide berri eta hedaturiko kultur ezaugarriak bezala, kultura alderdi asko nahasten dituzten aldaketak erantzun kate bat sortzen dute sarritan.